

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



Biba festa!

Altsasu festen ekuatorera iritsi da gaur / 11-15

Irurtzunen hegoaldeko itxura aldatuko duen urbanizazioaren lanak hasi dira / 7

Euskararen ezagutzari buruzko gobernuaren ikerketa, aurrekoen ildotik / 2-3

Etxarri Aranazko plaza, liburutegitik parkeraino, erabat irisgarria izanen da oinezkoendako / 8

190 mendi korrikalari, igandean jokatu den Uharte Arakil Beria in Kilometro Bertikalerako prest / 16

Joseba Perez, Villarrealeko futbolari lakuntzarra: "badugu goian egoteko presio hori" / 18-19

Mikel Montesinos argazkilari altsasuarrak 'Beste begirada' erakusketa mustuko du / 22

Ongi pasa festak!

Sakanaoptika
optikarretika • audiorretika • kontaktuak

Itxoste Zaharbidetza 10 (Altsasu)
948 563 124 | WWW.OPTIKASAKANA.COM

"Euskal Herrian atzemandako joerak ditugu Sakanan"

CASTILLO SUAREZ GARCIA SAKANAKO MANKOMUNITATEKO EUSKARA TEKNIKARIA
Nastatek, Nafarroako Estatistika Institutuak, 2021eko ezagutza datuen berri eman zuten maiatzaren 5ean. Ikerketa horrek Sakanaz zein datu eman dituen azaldu du

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Nafarroako Gobernuak euskararen ezagutzaren inguruan udaberriaren plazaratu zituen datuak "tentu handiz" konparatzeko eskatu du Castillo Suarez Garcia datuak, baita datu bilketan metodologia bera erabili. **Nola egin dute euskararen ezagutzaren inguruko lan hori?** Nafarroako Gobernuak euskarari buruzko datuak 1986tik jasotzen ditu. Garai batean Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldaren bidez jasotzen ziren. Hura egiteari utzi, eta galdetegi bidez jaso ziren 2011tik aurrera. Jasotakoa lagina zen, ez zitzaion populazio osoari galdetzen. Ondorioz, informazio hutsuneak sortu ziren, eta hizkuntzen ezagutzari buruzko informazioa galdetegi osagarriaren bitartez jasotzen hasi ziren. Kopururik ez du ematen, datu guztiak ehunekoak dira. 2021eko edizioan laginari gehitu egin zaio administrazio erregistroen bitartez eskuratutako informazioa. Beraz, 2011tik aurrera, eta bereziki 2021ean, datuak jasotzeko modua aurreko urteetan erabilitakotik

desberdina da. Horrek garamatza konparaketak tentu handiz egitera. Beldur pixka bat ematen du datu horiek plazaratzeko. Hala ere, herrietan zer joera dauden ikusteko interesgarria da. Pistaren bat ematen dute.

Nola banatu gaituzte hitzunok?

Hiru kategoriatan. Euskalduna da, labur esanda, euskara ondo ulertzen eta hitz egiten duen pertsona. Euskaldun hartzailea da euskaraz nekez ulertzen eta hitz egiten duen pertsona, edo ondo ulertzeko gai dena, baina ez duena hitz egiten edo nekez egiten duena. Eta, azkenik, ez-euskalduna; hau da, euskaraz hitz egiten eta ulertzen ez duen pertsona. Azken horretarako ez dakit zergatik ez duten erabili erdaldun hitza.

Kategoria horien arabera, labur, zein da Sakanako argazkia?

Euskaldunei dagokienez, bi gauza gertatu dira. Herririk erdaldunenetan euskaldunen ehunekoak gora egin du, nabarmen gainera. Horren adibide da Ziordia. Herririk euskaldunenetan euskaldunen ehunekoak behera egin du, Udalerrri Euskaldunen

Mankomunitateko (UEMA) kide diren herrietan edo bertako kide izan litezkeen herrietan. Hori orokorra da; Euskal Herrian ere pasa da. Datuek erakusten duten beste fenomeno bat da euskaldun hartzaileen ehuneko handitu egin dela. Oso garrantzitsua da datu hori. Egia da euskaldun horiek hobeki moldatzen direla erdaraz euskaraz baino eta, beraz, orokorrean, erdaraz hitz egiteko joera izanen dute. Azkenean, hitzunok errazen moldatzen garen hizkuntzan hizketatzen garelako.

Euskaldunen eta hartzaileen arteko elkarrizketa elebidunetarako bidea ematen du.

Eta horri gehitu, esaterako, euskarazko kultura kontsumi dezaketela. Euskara Zerbitzuon helburuetako bat da euskaldun hartzaile diren horiek erabilera eta motibazioaren poderioz euskaldun izan daitezela.

Eta ez-euskaldunak?

Gero eta gutxiago dira.

Adin taldeetan alderik nabari da?

Pozgarria da udalerrri guztietan adin tarterik euskaldunena 29 urtetik beherakoena dela. Eus-

kaldun hartzaileei dagokienez, udalerrri gehienetan 30etik 54 urte bitarteko adin tartean daude ehunekorik handienak. Salbuespenak dira Irurtzun, Lakuntza eta Etxarri Aranatz. Lakuntzan, Etxarri Aranatz eta Iturmendin euskaldun hartzaileen ehunekoa handiagoa da 55 urtetik gorakoetan 30etik 54 urte bitartekoen artean baino. Irurtzunen, berriz, gehiago dira euskaldun hartzaileak 29 bitartekoen artean 30etik 54 urte bitartekoen artean baino. Ez-euskaldunei dagokienez, ehunekorik handienak 55 urtetik gorakoetan daude, orokorrean, adinduenak dira. Salbuespena dira herririk euskaldunenak: Arruazu, Lakuntza, Ergoiena, Arbizu, Etxarri Aranatz eta Urdaian. Horietan ez-euskaldunen ehunekorik handienak 30etik 54 urte bitartekoen artean daude.

Generoari erreparatuz gero?

Oso antzekoak dira gizonetako eta emakumezkoen ehunekoak euskaldunen artean. Alderik handiena Irañetan sumatzen da. Udalerrri horretan emakumezkoek gizonetako baino ehuneko nabarmen handiagoan egiten dute euskaraz. Euskaldun hartzaileen artean gauza bera gertatzen da; alegia parekoak dira emakumezkoen eta gizonetako ehunekoak. Salbuespena Irañeta eta Arruazu dira. Izan ere, udalerrri horietan euskaldun hartzaileen ehuneko nabarmen handiagoa da gizonetako emakumezkoetan baino. Bukatzeko, eta ez-euskaldunei dagokienez, Arruazu aipa genezake. Udalerrri horretan emakumezko ez-euskaldunen ehuneko handiagoa da gizonetako baino. Gainerako udalerrrietan datuak paretsuak dira.

Zein da herrien argazkia?

Herritarren %20 eta %50 arteko euskaldun kopurua duten uda-

lerriak dira: Arakil, Irurtzun, Irañeta, Iturmendi, Altsasu, Oltagutia eta Ziordia. %50etik %80ra bitarteko euskaldun kopurua dutenak Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Urdaian dira. Ergoienan euskaldunen kopurua %80 eta %100 artean dago.

Herrietako joerak zein dira?

Lehenik eta behin, esan beharra dago Sakana gero eta euskaldunagoa dela. Oro har, hazi egin dira euskaldunen ehunekoak eta euskaldun hartzaileen azken 35 urte hauetan. Hori berri pozgarria da. Baina, Sakanak berezko duen ezaugarrietako bat aniztasuna da, eta hori ere datu soziolinguistikoetan ikus daiteke: oso herri euskaldunak daude erdaldunagoak diren beste batzuen ondoan. Tamainaz ere alde handia dago udalerrien artean, eta herritarrek udalerrri batzuetan zerbitzuak udalerrri batzuetan pilatzen dira. Datuetan ikusi dugunez, oro har herri erdaldunen joerak eta herri euskaldunenak kontrajarriak dira euskaldunen bilakaerari dagokionez. Beraz, hasierako baieztapen biribilari nabardurak egin behar zaizkio.

Ezagutzak non egin du behera?

Euskaldunen ehuneko jaitsi da Arruazun, Arbizun, Ergoienan, Etxarri Aranatz, Bakaikun eta Urdaian. Herri horietan euskaldun hartzaileen ehuneko handitu da. Nolanahi ere, esan behar da euskaldunen jaitsiera ez dela udalerrri guztietan tamaina berekoa izan, Arbizun, Bakaikun eta Ergoienan nabarmenagoa izan baita Arruazun, Etxarri Aranatz eta Urdaian baino. Euskararen kale neurketaren emaitzak emangenuenean, Urdaian erabilerak oso behera egin zuela esan genuen, eta kezka begiratzen genion. Baina euskararen ezagutza Urdaian ez da hainbeste jaitsi, ezagutza datuak onak dira, eta urdindarrendako esperantza izpi bat izan daiteke: zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta gehiago erabiltzeko aukera dago.

Hor herririk euskaldunenak daude.

EGOKI
Ventanas PVC Leihok
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Castillo Suarez Garcia euskara teknikaria. DANI BLANCO

Hizkuntza batek bizirauteko eta indartzeko arnasguneak behar ditu, nagusiki euskaraz egiten den udalerririk. Baina maiz udalerririk euskaldunenak ez dira herririk handienak, eta pisu demografikoa galtzen ari dira Euskal Herri osoari erreparatzen badiogu. Gainera, udalerririk erdalduntzeko joera agerikoa da, eta demografia aldaketek ere badituzte beren ondorioak. Esaterako, Sakanako udalerririk batzuetan etxebizitza asko eraiki dituzte, eta bizilagun berri asko daude. Fenomeno hori Euskal Herri osoan gertatzen da.

Ezagutza inon mantendu da?

Euskaldunen ehunekoaren iguera txikia nabaritu da Lakuntzan. Herri horretan, gainera, euskaldun hartzailen ehunekoak jaitsi da eta ez-euskaldunen ehunekoak handitu. Azalpen asko daude datuen atzean.

Eta ezagutzak, non egin du gora?

Igoera nabarmena egon da euskaldunen eta euskaldun hartzailen artean Arakilen, Irurtzunen, Irañetan, Uharteko Arakilen, Iturmendin, Altsasun, Olatzagutian eta Ziordian. Nabarmenena, Ziordian. Udalerririk horietan guztietan ez-euskaldunen ehunekoak txikitu da. Ikastetxeek eta eskulaguntzietan egindako lana ez da alferrikakoa izan.

Ikerketen joerak bat egiten dute?

Zorionez, Euskal Herrian atzemandako joerak ditugu Sakanan.

Duguna baino gehiago nahi dugu. Erabilera ez da igo, baina ez du beherantz egin, eutsi egin zaio. Herri batzuk duela 35 urte baino askoz euskaldunagoak dira. Belaunaldi gaztea euskalduna da. Euskaldun hartzailen asko ditugu; Euskal Herriko fenomeno da. Gure lana izan da ez bakarrik euskaldun gehiago izatea; sortzen diren euskaldun horiek euskaraz hobeki moldatzea beste hizkuntzetan baino. Ahalegin berezia eginen nuke hartzailen euskaldun izan daitezen, txipa alda dezaten, transmisore izan daitezkeen guraso direnean, euskarazko kultura kontsumi dezaten...

Ikerketok baliagarriak zaizkizue?

Planifikatzeko heldulekuak dira. Gure lanean gauzak oso epe luzean ikusten dira. Batzuetan ez dakigu egin dugun horregatik hobetzen edo okertzen diren datuak. Ez da berehalakoa; hori du txarra. Hizkuntza bat edo bestea aukeratzeko dauden arrazoen artean ez dago bakarrik gaitasuna. Bikotekidea izan daiteke arrazoa hizkuntza baten alde edo beste baten alde egiteko. Edo bizilaguna, lankidea, umeen zaintzailea... Hizkuntza etengabe erabiltzen dugu, eta etengabe ari gara hautuak egiten.

Zer besteri erreparatu behar zaio?

Euskaldun hartzailen hobeki moldatzen direla erdaraz euskaraz baino. Euskaraz hobeki moldatzen direnak hizkuntzari atxi-

kitzen zaizkio, baina beste hizkuntza batean hobeki moldatzen direnendako esfortzua da euskaraz egitea. Nolanahi ere, badago euskaraz errazago egiten duten hiztunen artean erdaraz erabiltzeko nolabaiteko joera: hitzak edo esaldiak sartuz han eta hemen. Eta egoera hori bada ere, badira Euskal Herrian haien seme-alabak euskaraz heztea erabaki duten gurasoak, nahiz eta errazago moldatu erdaraz. Datu interesgarria da, nire ustez. Esperantzarako izpi bat baino gehiago da. Gure helburua da haur horiek, helduak direnean ere, eroso bizi daitezela euskaraz.

Euskal Herriaz ari garela, sinpleki esanda, 2.000. urte inguruaz geroztik, ordea, ez atzera ez aurrera gaudela esan dezakegu. Hainbat arrazoi daude: aldaketa

"AHALEGIN BEREZIA EGINEN NUKE HARTZAILAK EUSKALDUN IZAN DAITEZEN"

"NAGO NOLABAITEKO LASAITASUNA DAGOELA GUREAN EUSKARARI DAGOKIONEZ"

demografikoak, globalizazioa eta bere ondorioak eta urteetan ezarri diren hizkuntza politikak. Gainera, ez du ematen aipatutako joera horiek aldatuko direnik epe motzean behintzat. Garbi dagoena da euskaraz lehentasunezkoa izan behar duela gure eguneroko jardunean eta tokiko eta Nafarroako politiketan. Eta hori ez da, ez dugu egiten, edo ez dugu beti egiten.

Norantz jo beharko genuke?

Helburua beti izan da euskaldun gehiago izatea. Baina, egun, horretaz aparte, edo horren gainetik, euskaraz erdaraz baino hobeki moldatuko diren euskaldunak nahi ditugu. Euskaldun hartzailen, eta euskaldunek, euskara erabiltzeko espazioak sortzea eta bermatzea dagokigu erakunde publikoei. Horrela beren gaitasuna hobea izan da eta, bidenabar, erabilera ere bai. Oso zabaldua egon den ideia bat da euskararen ezagutzaz baino gehiago, erabileraz arduratu beharko genukeela. Eta, bistan da, ezagutza beti da erabilera baino handiagoa. Inñaki Iurrebaso soziologoak bere tesia plazaratu du berriki. Bi hitzetan esanda, euskaldunen eta euskaldun hartzailen erabilera haien ezagutza mailari "dagokiona" baino altuagoa da. Iurrebasok azaltzen duenez, euskal hiztunek euskararekiko atxikimendu edo leialtasun handia dute. Hori da, hain zuzen, euskararen biziraupenaren funtsa.

Nolabaiteko lasaitasuna dago gurean euskarari dagokionez. Euskaldunak gero eta gehiago direnez, eta, salbuespenak salbuespen, erabilerak ez duenez behera egin, euskara "salbatua" dagoela gurean. Hainbat politikariren artean oso hedatua dago beste ideia bat: aurrekontua handitzeak edo aurrekontu duina izateak bermatzen du hizkuntza politika hobea. Egia da euskaraz dirua behar duela, baina aldeko araudia eta erabaki ausartak ere behar ditu. Birtartean, erdaraz gero eta toki handiagoa du gure bizitzetan, eta gero eta errazago onartzen dugu, eta hemen ere, zorionez, salbuespenak daude, mendizain eta mediku erdaldunak, gaztelaniazko antzezlanak eta filmak, eta dendetako errotuluak eta oharra euskaratu gabe. Eta aipatutako horiek guztiak ez dira globalizazioaren ondorioak, ez horixe.

Prestakuntza ikastaroa prest

Nafarroako Euskara Zerbitzuen Sareak bi trebakuntza saio eskainiko ditu ibarrean. Saio horien helburua da soziolinguistikako oinarriko kontzeptuak ezagutaraztea, besteak beste, hizkuntza politika eta hizkuntza plangintza zer diren ulertu eta bereiztea. Horrekin batera, prestakuntza saio horiek balioko dute euskara zerbitzuen funtzioak zein diren jakiteko. Azkenik, euskararen inguruko araudiari buruzko oinarriko informazioa ere emanen dute sareko kideek.

Prestakuntza saio horiek ibarreko udaletako eta euskara batzordeetako kideei zuzenduta daude. Izan ere, "alkate batek edo edozein zinegotzik legegintzaldian hamaika erabaki hartuko ditu, eta askok hizkuntzarekin zerikusia izanen dute", azaldu du Sakanako Mankomunitateko euskara teknikari Castillo Suarez Garciak. Lan txandaren arabera, goizean edo arratsaldean joan ahal izateko bi saio antolatu dituzte; bi orduko iraupena dute. Aurreneko saioa hilaren 26an izanen da, asteartearrekin, 09:00etatik 11:00etara. Atzema, berriz, hilaren 27an izanen da, asteazkenarekin, 17:00etatik 19:00etara. Saioak Sakanako Mankomunitateko Lakuntzan duen egoitzan izanen dira.

Doako saioak dira, baina alde aurretik izena ematea gomendatu dute. Horretarako, MANK-eko Euskara Zerbitzura jo behar da, euskara1@sakana-mank.eus e-postara idatziz edo 948 464 840 telefonora hots eginez. Izena hilaren 20ra arte eman daiteke.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Udako hondarren dastamenean

Tarteka bero errealdia itogarritz, tarteka goiz fresko lanbrotsu eta ilunabar hozkirridun, inoiz edo behin ekaitz harrotu bakanen bat, hala doakigu poliki-poliki aurtengo uda, geure opor xedea ase nahian edo bestelako ahaleginetara emanak.

Uztailaren batean Iortian (barru eta kanpo) ekitaldi txit mamitsu eta akademikoa bizitzeko aukera ukan genuen; izan ere, Altsasuko alaba, Arbizuko bizilaguna, eta, agian, oroz gain, olerkaria den Castillo Suarez euskaltzain oso egin zuen Euskaltzaindiak goizbeteko jardunaldian. Poetak –ahaide, gogaide eta lagunaren aurrean– maitasun botaniko bat oparitu zien entzuleei eta, oro har, euskal irakurleei; iratzea eta irautea nagusi, baina kostaldeko limoien garrantzia eta garrantza ahaztu gabe. Sarrerako hitzaldi eder, hunkigarri eta magikoa harilkatu zuen Suarezek. Ontasunaren inguruko haren azken aipu eta desideratuma ere bertaratuen gogoan geldituko da.

Urmuga musika ziklo guztiz gomendagarriak hirugarrenez Aralarko Aizpearron egin zuen erronda, eta aurreko bietan ez

HALA DOAKIGU POLIKI-POLIKI AURTENGO UDA, GEURE OPOR XEDEA ASE NAHIAN EDO BESTELAKO AHALEGINETARA EMANAK

bezala, giro heze, lanbrotsu eta hotzean gertatu zen. Musikari eta entzule batzuk hotzak akaturik garatzen ari zen emanaldia, Alex Sardui bionikoak publiko gehiena zutik eta dantzan jarri zuen arte. Ondoren, Lakuntzako samalda kementsuak biribilketa ezinago alaitsuari ekin zion Oskorriren Compostelan erromes doinuaz, eta ikuskizunaren ustegabeko

akabailan Rikardo Goikoetxea Uharteko artzainak azken bisa eskaini zuen, eta sakandar bertso sorta bat abestu.

Aurten ez omen da udarako kantarik izan. Hala eta guztiz ere, ABBA suediarra beti itzultzen da. Eta uda honetan, zalantzarik gabe, *Waterloo* igo da berriz goiko postu nagusietara.

Uda hondar on!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Utopiak lehertzeraino!

ERRAFAILAK SAKANAN

Jada hasi gara azaroaren 30eko GREBA OROKOR FEMINISTAREN antolaketan auzo eta herrietan, eta milaka gara lanean ari garen neska* gazteak, zaintza politizatzen ari garenak.

Bizi dugun bizitzaren eta kapitalaren arteko talkan, zaintza lanen pribatizazioa eta merkantilizazioa ezinbestekoak zaizkie botere kapitalista, patriarkal eta kolonialeari, biziraun dezaten. Izan ere, gure gorputzen esplotazioari esker produzitu eta erreproduzitzen da kapitalismo zisheteropatriarkal koloniala. Beraz, zaintza lan gisa ukatzea eta inbisibilizatzea sistemaren ezinbesteko premisa da; eta

horrexegatik diogu egungo zaintza sistema iraultzearen proposamenak potentzial politiko izugarria duela, bestelako sistema bat irudikatzea eta antolatzea garrantzizkoak.

Mugimendu Feministakook zaintza sistema iraultzearen proposamen erradikala mahai gaineratu dugu, greba feminista orokor baterako deia eginez, eta zaintza eskubidea izatea eta lan honen gaineko erabaki gaitasun kolektiboa edukitzea exijituz.

Euskal Herriko neska* gazteok izena jartzen diegu gure gorputzak zeharkatzen dituzten zapalkuntza egoerei, hezkuntza sistema patriarkala dela salatzen dugu, bestelako harreman ereduak

imajinatzen eta praktikan jartzen ari gara, autodefentsa feministan gure gorputza jartzen dugu... Lanean ari gara, eta grebaren aurretik Euskal Herriko gazte feministontzat espazio bat sortuko dugu. Elkargune eta eztabaidarako espazio bat; BATERAJOTZE berri batera goaz.

Dugun potentzialtasuna artikulatu, norabidetu eta nola kristalizatu erabakitzeke, Usurbilen elkartuko gara urriaren 13, 14 eta 15ean. Finean, beste mundu bat posible dela sinetsi eta hori eraikitzeke borrokan gaudelako; utopiak gaurdanik eraikitzen hasi garelako, utopiak lehertzeraino goaz!

Telegram kanal berria

Sakanako informazio guztia zure eskura

guaixe

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Idoia Artieda Larrazza

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Lamurrek euskara ikastera animatu du

Clownak Altsasuko pintxopotean agerraldia egin zuen euskaltegian matrikulatzeko gonbidapena eginez. Informazioa zehatza nahi izanez gero Euskara Zerbitzura (948 464 840), AEK-ra (607 624 392) edo 'elaide.eus' webgunera jotzeko eskatu zuen

ALTSASU / SAKANA

Pintxo pote berezia izan zen Altsasun hilaren 7an. Izan ere, Pantxika Lamur clowna poteoan edo terrazetan zirenen artean ibili zen, batera eta bestera. Bere etorri biziarekin, eta zenbait ariketaz lagunduta, topo egiten zuen jende guztiaren arreta piztu zuen Lamurrek. Ostegun iluntzean kalean zirenen artean mezua zabaldu nahi izan zuen: euskaltegian izena ematea. Poteoan edo terrazetan zeudenei jakinarazi zenez, euskara ikasteko aitzakiarik ez dago: "dirulaguntza handiak daude: matrikularen %80 edo gehiago ordaintzeko laguntza ematen dute Sakanako Mankomunitateak, udalak eta Euskarabideak".

Lamurrek jakinarazi zien gainera, Sakanako Itsasi euskaltegian maila guztiak ikas zitezkeela, "hasiera mailatik C2 mailara. Gainera, euskara praktikatzeko doako Mintzakide programa dago". Euskara ikasteko aitz-



Pantxika Lamurrek azalpenak eman bitartean ariketak egin zituen. EUSKARA ZERBITZUA

kiaren bat esaten zionari Lamurrek prozesua "oso malgua" zela jakinarazi zien: "aurrez aurreko klaseak goizez nahiz arratsalde, autoikaskuntza eta abar". Jakinarazi zien klaseak Irurtzunen, Etxarri Aranatzan, Altsasun edo

taldea sortzen den edozein herritan izan zitezkeela. Lamurren agerraldia Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatuta zuen, Sakanako AEK-rekin, Itsasi euskaltegiarekin, elkarlanean.

Dantzalekuko lanak eta harako ur sareko lanak emanda

Futbol zelaiko belarra aldatu eta argiteria aldatuko da. Gainera, harainoko ur sarea berrituko da

ALTSASU

Dantzaleku kirol guneko futbol zelaiko belar sintetikoak aldatzeko eta argiteriaren zati bat berritzeko lanak eman ditu Altsasuko Udalak. Lan horiek egiteko ardurak Mondo Iberica enpresari eman dio 247.075,59 euroren truke. Futbol zelaia 2010z geroztik dagoen eta dagoeneko hondatuta dagoen belar sintetikoak kendu eta berria jarri beharko du. Gainera, kendutakoaren zati bat goiko zelaiaren ipar ekialdean jarriko da, futbol zazpirako zelaia sortzeko. Bestetik, egungo argi-

teria azpiegitura eskasa da urteko zenbait hilabetetan eta ordutan, ondorioz, partidak jokatzeke arazoak daude. Horregatik, gaur egungo proiektoreak LED argiengatik ordezkatzeko dituzte.

Bestetik, Altsasuko Udalak Lacunza Hermanos enpresari eman dio Dantzaleku kirol gunera doan ur sarea berritzeko lanak. Haien truke 144.000 (BEZik gabe). Ur hornidura sare horrek Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutura eta Iñigo Aritzta ikastolara adar bat du. Bidean dauden zenbait etxe ere urez hornitzen

ditu. Hodia zuntz-zementuzkoa da; "sareak 40 urte baino gehiago ditu eta oso hondatuta dago, ohiko hausturekin, eta hausturen ondorio ez diren ohiko galerak ere izaten dira. Sarearen puntu batzuetara iristen den ur emaria eta haren presioa ez dira nahikoak udako igerilekuak betetzean".

Lanak San Pedro bideko errotonda ondoan dagoen erregistro kutxatilan hasiko da: fundizioko hodiak jarriko dituzte, hiru erregistro kutxatiletan ixteko giltzak jarriko dira, ur kontagailuak berrituko dira, kutxatilan sarea sekzioetan banatzeko giltzak ere izanen dira, ur ihes kasuan errazago atzemateko. Dantzalekura eta ikastetxeetara daramaten kaleen bidegurutzetan porlanezko kamera bat egingen da. Han ixteko giltzak eta kontagailuak izanen dira.



UTZUBARTXOREN TXOKOA

Kaixo! Utzubar txo naiz, urtero martxo aldera Arbizuko UtzubarEKOgunera hurbiltzen naizen sai edo putre zuria. Sakanan hilabete batzuk pasatzen ditudanez, tarte horretan Sakanako Mankomunitatearen Hondakin Zerbitzuko mezulari bihurtuko naiz.

Hasi da ikasturte berria! Haur eta gazteak badoaz ikastetxeetara bidean motxilak bizkarrean hartuta. Ohartu naiz atsedendian, hamaiketako egiterakoan, berriz erabil daitezkeen ontziak eta bilgailuak eraman dituztela ikasleek. Zeinen ongi! Hala ere, bakarren batek oraindik ere aluminiozko bilgarrion eraman du ogitartekoa. Aluminioa, edukiontzi horian botatzen badugu, birziklatu daitezkeen arren, hobe da hondakin hori sortzen ez badugu. Izan ere, bazenekien ekoiztako aluminio kilo bakoitzeko, atmosferara 9 kg CO2 isurtzen direla? Horretaz gain, saihestu plastikozko bilgarrion dituzten opil industrialak, eta eraman ur botila berrerabilgarria ikastetxera. Irakaslea bazara, hobe zure kikara eramaten baduzu eguneroko kafea plastikozko edalontzian hartu behar ez izateko. Pentsa zenbat plastikozko edalontzi erabiltzen dituzun egunean. Askoz gutxiago erabiliko dituzu horrela. Gaur egun hainbat aukera dago erabilera bakarreko produktuak ekiditeko. Gogoratu hondakin onena dela sortzen ez dena!

Mank
s a k a n a



Utzubartxoren Txokoa Nafarroako Hondakin Funtzak finantzatu du. Hondakin Funtsa bereizi ez diren hondakinak zabortegean isurtzeagatik ordaintzen den zerga baten bitartez jasotako diruarekin hornitzen da.



Joan zen urtean saritutakoak. ARNASA GARA

Arnasetik bideosormen lehiaketara deitu dituzte gazteak

10 eta 16 urte arteko gazteek hainbat istorio kontatu beharko dituzte beren sormenaz baliatuz

ARBIZU / ETXARRI ARANATZ

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA; Arbizu eta Etxarri Aranatz kide dira), Eusko Jaurlaritzaren eta Euskarabidearen ekimena da Arnasetik bideosormen lehiaketa, euskararen arnaguneetako, udalerrri euskaldunetako, 10 eta 16 urte arteko gazteei zuzenduta dagoena. Parte hartzaileen egitekoa euskarari lotutako istorioak kontatzea izanen da. Lehiakideen sormena pizteaz aparte, lehiaketaren helburua arnaguneetako gazteen hizkuntza ohituren inguruan gogoeta eragitea ere bada. Bideosormenak lastailaren 1etik 24ra aurkez daitezke.

Gazteek lanak banaka edo taldeka, lagunartean edo ikaskideekin batera, egin ditzakete, nahieran. Adinaren arabera hiru kategorია daude. LHko 5. eta 6. mailakoek beraien herriak no-

lakoak diren azaldu beharko dute, bertan zer egin daitekeen eta, garrantzitsuena, euskara maila hobetzeko zergatik diren egokiak azalduz. Promozio bideo baten bitartez edo formatu librean (marrak, olerki, bertso, bideo, abesti...) aurkeztu ahal izanen dira kategoría honetako lanak. DBHko 1. eta 2. mailakoek herrietako esamolde berezienak eta beraien esanahia azaldu beharko dute umorezko bideo baten bitartez. Arnasguneetan entzun daitezkeen euskalkie balioa aitortzeko ariketa da hori, euskararen aniztasuna agerian utzi nahi duena. Azkenik, DBHko 3 eta 4. mailakoek modu sortzailean bideo bat eratu beharko dute, euskal kultura, musika eta ekimenak balioan jarritz. Bideo ereduak eta oinarriak www.arnasagara.eus webgunean daude ikusgai. Mailako 500 euroko balioa duen saria dago.

Euskal Festan Gorriti omendu zuten

XIX. mendeko musikari ubertear ezagunak bere garaiko mugimenduekin konpromisoa izan zuela jakinarazi zuten. Herminio Oloritz Azparrenekin batera foruen aldeko himnoa sortu zuen Felipe Gorriti Osanbelak

UHARTE ARAKIL

Bi urtean behin antolatzen du Euskal Festa Guk Gureak elkar-teak. "Euskal kultura eta nortasuna kalera atera eta indartzeko" asmoz antolatzen dute ospakizuna. Aurten erraldoi eta buruhandien konpartsak, zanpantzarrak eta UharTE Kantuz taldeek kalejira animatua egin zuten eguerdian. Ondoren, ehun bat pertsona elkartu ziren bazkal-tzera. Bazkalondoa Errotik taldeak animatu zuen. Disko jartzaileak, toka txapelketak eta talo janak osatu zuten egitaraua.

Aurretik, hilaren 7an, Xabier Irujo Ametzagak *Gamazada, Batasunaren Indarra* hitzaldia eskaini zuen. Gamazadaz eta garai hartako protagonistak izan zituen hizpide, tartean Felipe Gorriti Osanbela ubertearra. "Gorritik herri omenaldi bat behar zuela pentsatu dugu. Gaur bere arte ekarpenaz aparte, euskal kultura, hizkuntza eta esku-bide historikoen aldeko konpromisoagatik omendu nahi izan dugu", azaldu zuten elkarteko kide Gaizka UharTE Baldak.

Gorritiz

Gorriti 1839ko agorrilaren 23an jaio zen. Uhartek gogorarazi zenez, "bera jaio zenean Nafarroak bere estatu egitura mantentzen zuten: txanpona, mugak baita nafar gisa kreditatzen zuten pasaporteare. Ondoren, bi karlistada bizi behar izan zituen. Haien ondorioz, ubertearrek, nafar guztiek eta gainontzeko euskal lurraldeetako herritarrek ikusi zuten foru erregimenaren azkena, beraiek beraien erabakiak hartzea ahalbidetzen zuten erregimena hain zuzen ere". Azaldu zenez, "Gamazada garaiko politika sistema suntsitzeko azken atala izan zen".

XIX. mendeko testuinguruaren berri ere eman zuten: "garai hura bizi izan zutenek ikusi zuten 200.000 pertsonak Euskal Herria



Ekitaldian parte hartu zuten ubertear batzuk Gorritiren sortetxearen parean.

"GORRITI BIZI IZAN ZEN GARAIAN, NAFARREK ALDAKETA SAKONAK BIZI IZAN ZITUZTEN"

utzi zutela; Amerikara, Filipinetara joan ziren bi gerren biktima izandakoak, soldaduskaren ezarpenetik ihesi eta bestelako arrazoiengatik. Kopuru hori 1936ko estatu kolpearen ondorioz joan behar izan zutenen bikoitza da".

Beraz, Gorriti bizi izan zen garaian, nafarrek "aldaketa sakonak" bizi izan zituztela ondorioztatu zuen. "Aldaketa horiek zeharo markatu zuten gizartea: Gorriti jaio zenean Nafarroako Pasaporteare zuten eta hil zenean, berriz, Espainiakoa; zergak hemengo ogasunari ordaintzetik Madrili ordaintzera pasa zen; eta gure kultura bizirik egotetik, arriskuan egotera pasa zen". Aldaketa horien lekuko izan zen Gorriti. "Baita euskal kulturak izan zuten berpizkundearena ere". Bigarren karlistadaren ondoren eta Gamazada zela-eta dantzak, makila dantzak eta himnoak

sortu zituzten. Haien guztien helburua zen "arriskuan ikusten zuten herriaren identitatea eta kultura mantentzea".

Euskara Elkarteko kide eta politikaria zen Herminio Oloritz Azparrenekin idatzitako letrari musika jarri zion Gorritik, horrela foruen aldeko himnoa sortu zuten. Pieza Santa Zezilia Orkestrak eta Iruñeko Orfeoiak mustu zuten 1893ko irailaren 23an. Iruñeko Sarasate pasealekuan eraiki zuten Foruen monumentuaren omenezko estreinaldia izan zen hura. Uhartek gaztigatu zenez, "Gamazadaren kontrako monumentua 120.000 nafarrek emandako diruarekin jaso zen. Gainera, German Gamazo ministroaren kontrako Nafarren Ohorezko Liburuan 250 ubertearrek sinatu zuten".

Gorriti 1896ko martxoaren 12an hil zen, Tolosan. Haren heriotzaren urteurrena zela eta, Oloritzek *A mi patria* izenburuko poema eskaini zion ubertearri, Gorritiren sortetxearen parean erreztatutakoa. Baita foruen alde konposatu zuten kantua abestu ere. Jota eta porrusalda ere dantzatu zituzten Gorritiren erraldoiaren inguruan.

euskara hurbil,
zu urrun heltzeko

Sakana
Itsasi euskaltegia

EUSKARA IKASTAROAK
Altsasun, Iruñezun, Etxarri Aranatz...

Izena emateko azken eguna:
irailaren 21a

Gartzia Ximenez 46, behea,
ALTSASU
sakana@ae.eus
948 468 258

DIRULAGUNTZAK

Sakanako Mankomunitatea,
Hainbat Udal eta Nafarroako Gobernua





Urbanizazio berriko lanak saihesbidetik.

Irurtzun hegoaldeko urbanizazio berriko lanak hasi dira

Saihesbideak, Intxaurreta kalearen eta Lizarra kaleko 20 eta 24 zenbakien arteko espazioa hartuko du

IRURTZUN

Duela bi aste egindako lur mugimenduekin urbanizazio berriaren zer edo zer atzematen da. Esaterako, Larraun eta Lizarra kaleak lotuko dituen kalearen trazatua. Izan ere, duela bi aste ekin zioten Lacunza enpresako langileek Irurtzongo hegoaldeko urbanizazio lanak egiteari. Guztira 8.120,8 metro karratuko eremua itxuraldatuko dute, hartatik 4.014,17 m² kale, hainbat espaloi eta 34 aparkaleku (3 ezgaituendako) plaza izanen dira. Lan horien truke enpresak 637.774,71 euro (BEZik gabe) jasoko ditu. Lanak egiteko zortzi hilabete dituen enpresak.

Irurtzongo Udalak herritarren etxebizitza premia zein zen jakiteko inkesta egin zuen 2021eko otsailean. Bi eskaera nabarmendu ziren: familia bakarreko etxebizitza baten bila dabiltzan familia helduak eta etxebizitza bat

eskuratu nahi dutenak. Irurtzunen nahikoa pisu badaudenez, familia bakarreko etxebizitzaren eskaerari erantzuna emateko pausoak ematea erabaki zuen udalak. Gainera, pandemiaren ondorioz, izan zen herritarrik udaletxera joan zenik galdezka ea halako etxebizitzak jasotzeko partzelarik ba ote zegoen. Udalaren ezezkioa jasotzean, aldameneko herrietara begiratzen zuten herritarrek. Beraz, Irurtzunen biztanleak finkatzeko urbanizazioa egitea erabaki zuen udalak.

Urbanizazioa eginda, familia bakarreko etxebizitzetarako 29 partzela sortuko dira: 10 saihesbidearen parean, 11 Lizarra kalearen parean eta gainontzeko 8ak urbanizazio barruan. Urbanizazioaren zati baten jabea udala da eta bestearren partikularrak. Udalarenak 12 partzela izanen dira. Udalak oraindik ez ditu saltzeko baldintzak zehaztu.

Nasuvinsak badu Arbizun eta Altsasun etxeak egiteko abala

Nafarroako Gobernuak Nasuvinsari 23.592.321,51 euroko abala ematea erabaki zuen herenegun. Horren bidez, Navarra Social Housing alokairurako foru planaren bigarren fasearen barruan, hamalau udal utzitako lurzoruan Babes Ofizialeko 144 Etxebizitza egingen dira. Horietako 26 Sakanan egingen dira, alokairura bideratuko direnak.

Haietako bost Arbizun, San Joango bidea kalean, 407,1 m²-ko lursailean. Gainontzeko 21 etxebizitzak Altsasuko Ualdera eta Amandrea kaleetan dagoen 1.690 m²-ko azalera duen lursail batean. Altsasukoa lehen fasea izanen litzateke. Hura bukatu eta gehienez ere bost urteko epean enpresa publikoak beste 21 etxebizitza eraikitzeke aukera luke aldamenean. Eraikinak 3 altuera izanen ditu, eta beheko plan-tan udalarendako 596 m²-ko espazioa izanen da.



Sakanan zaindu gertutik

IRAILAK 20-21

LAKUNTZAKO KULTUR ETXEAN

IRAILAK 20 // 16:15-19:30

16:15 HARRERA ETA MATERIALEN BANAKETA

16:30 SARRERA HITZALDIA

• ZAIINTZAK ERDIGUNEAN ZERTAZ ARI GARA?

Zaintza lanak ikuspegi feministatik lantzeko hitzaldia
Miren Aranguren-Emagin elkartera

17:15 ERALDAKETARAKO ESPERIENTZIAK I

• BETERRI-BURUNTZA ESQUALDEKO ZAIINKETEN DIAGNOSTIKOA

Miren Aranguren-Emagin elkartera

• USURBILGO ZAIINTZA EKOSISTEMA

Eriuden Aldaz - Matia Institutua
Agurtzane Solaberrieta Mesa, Usurbilgo alkatea

18:00-18:15 ATSEDENALDIA

18:00-18:15 ERALDAKETARAKO ESPERIENTZIAK II

• BERRIOZAR ZAIINTZA ARDATZ

Amalia Zalba: Berriozango Udala (Berdintzearen teknikaria)

• AMURRIOKO UDALAREN JARDUNEAN ZAIINKETEN IKUSPECIA TXERTATUZ (ERDI)

Delicia Aguado Peláez eta Patricia Martínez García
Aredia kooperatiba

19:15-19:30 ONDORIOAK

IRAILAK 21 // 16:30-19:00

16:30-18:00 • NOLAKOAK DIRA ZAIINTZEN DUTEN HERRIAK ETA ESQUALDEAK?

Zaintzarako arki/tekturak

Amalia Albeniz eta Koldo Telleria (Hiri Dunak)
Irati Megoien (sozialologia/sociologia)

18:00-18:15 ATSEDENALDIA

18:15-19:00 • ZAIINTZAREN PEDAGOGIA

Nora Salbotx Alegria (Amalurko Eskolako zuzendari eta maistra, Hiri Hasi talde pedagogiko kidea eta landa-eskoletan aditua eta pedagogo formatzailea)

IZENA EMAN

<https://forms.gle/h8YjLXAU5XQCvuy9>

berdintasuna@sakana-monk.eus



*Zaintza berbitza egongo da. (3 urterik gora).
Aurretik izena eman behar da.

ANTZOLATZILEA



LAKUNTZALAK



Plaza irisgarriagoa egiteko lanak eginen dira

Lau tokitan oinezkoendako irisgarriagoa eginen dute plaza. Lanak egin ondoren plaza espazio bakar bat izanen da eta ez plazen jarraipen bat. Oinezkoek lehentasuna izanen dute liburutegitik jolas parkera arte

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko Udalak plaza hobetzeko parte hartze prozesua abiarazi zuen 2017ko otsailean. Haren ondorioz, Larreñondon autoendako aparkalekua egin zen, udaletxe pareko zabalgunea eta Larrañeta kalearen zati bat oinezkoendako bihurtu zen. Prozesu haren baitan plazan estalpea jartzea ere erabaki zen. Hartutako erabakien bidez herri erdigunean oinezkoek lehentasuna eman zitzaizen. Asmo horrekin jarraituz, plazan zehar erabateko irisgarritasuna lortzeko lanak eginen ditu orain udalak. Haren bidez, arkitektura oztopoak dauden lau tokitan horiek kentzeko lanak eginen dira.

Liburutegiaren, kutzaren eta liburu dendaren arteko espazioan zorua altura berean jarriko da, udaletxe pareko zabalguneko alturan utziz. Granitozko harlauzak jarriko dira zoruan. Horrekin batera, zuhaitzen ondoan dagoen banaketa murrutxikia



Etxarriarrek irisgarri eginen den tokietako batean. ARTXIBOA

eta haren aldamenean dauden harrizko kuboak kenduko dira. Aldi berean, liburutegira sartzeko dagoen kokka kenduko da, sarbide irisgarria izan dezan.

Bestetik, Kale Nagusiaren eta Mundiño kalearen bidegurutzea-

ren ondoan beste lan bat eginen da. Udaletxearen aldamenean zeuden aparkatzeko tokiak kendu eta zelaigune txiki bat egin zen. Baina handik aurrera eta atzera ibiltzen direnak udaletxe-ko espaloia eta zelaigune horre-

tan arkitektura oztopoak dituzte. Horiek kentzeko eta biak altuera berean jartzeko porlanezko zerbabide goratu bat eginen da.

Maiza eta Lazkoz kaleen parean plazako zuhaitzi batetik bestera pasatzeko tartea dago. Zuhaitziak baino beherago dago, eta handik ere ibilgailuak pasatzen dira; lehentasuna dute gaur egun. Plaza guztia altura berean ez dagoenez, oinezkoendako oztopo handia da, batez ere, zaurgarriak diren pertsonendako: gurgildun aulkian edo taka-takarekin ibiltzen direnendako, sille-tendako... Behera jaisteko aldapa handia dago eta bustita dagoenean arriskutsua da. Gainera, beheko zorua galtzadarrizkoa da eta horrek adinekoen eta haurren makina bat eroriko eragin ditu. Hori guztia kontuan izanda udalak erabaki du plaza guztia altura berean jartzea, liburutegitik jolas parkeraino. Horregatik, obra bera eginen du haurren jolastokiaren parean. Horrela, oinezkoak lehentasuna izatera pasako dira, ibilgailuen kaltetan.

Bai plazaren erdian eta jolas parkearen ondoan honako lanak eginen dira, besteak beste: harrizko kuboak kendu, gaur egun autoak pasatzen diren tokian porlana bota plaza altuera berean jartzeko, haren gainean granitozko harlauzak jarri, autoendako arranpatan galtzadarriak jarri. Udalak lan horiek guztiak egiteko 77.411,41 euroko aurrekontua du.



Plaza irisgarriagoa egiteko lanak eginen diren lau tokiak. UDALA

Trafikoak sortutako arazoak kentzeko, zabalgunea

Kontzejuak Urritzolatik Etxarrenera daraman bidearen hasiera zabaldu du

URRITZOLA

Urritzolako San Pedro kaleko 1 zenbakidun etxea Etxarrenera doan bidearen bazterrean dago. Asfaltatutako dermioko bidea da hori, baina hala beharrez herrira joan behar duten kamioiek, uzta makinek, traktoreek eta tamaina handiko ibilgailuek erabili behar dute. Horiek guztiak ez dira Errozko Arakil gaineko zubian sartzen. Tamaina handiko ibilgailu horiek etxeko odorra, abazpi edo teilatu hegala jotzen zuten. Fermin Mariñelarena Iraizoz

kontzejuko presidentek gaztigatu duenez, puntu horretan ere bazen beste arazo bat: "bi autok topo egiten zutenean batek edo besteak atzera egin edo maniobrak egin behar zituzten". Nahiko komedia, beraz.

Hori guztia saihesteko Urritzolako Kontzejuak erabaki zuen etxearen parean bidea zabaltzea. 20 bat metroko luzeran mendiarri puska bat kendu eta zorua porlaneztatu zuten. Lanak udan hasieran egin zituzten eta haiengatik Urritzolako Kontzejuak 5.500 bat euro ordaindu zituen.



Kalea egin eta bi etxebizitza eraikitzen hasi dira.

Lan gehiago

Herriaren iparraldean kale berri bat zabaldu zen eta hiru etxebizitza eraikitzeko partzelak egokitu ziren. Argiteria publikoko eta etxeetarako argindar kableak jartzeaz aparte, euri urak jaso,

ur beltzak jaso eta edateko ura emateko sareak sartu zituzten. Baina urbanizazioa bukatu gabe, porlana eman gabe utzi zuten. Izan ere, kalea egiteaz bukatu berrikan bi etxebizitza familia bakar eraikitzeke lanak hasi

zituzten. Haien udarako despedituta izatea espero da. Orduan urbanizatuko dute guztiz kalea.

Garatzen ari den urbanizazio berriak 3.835,21 m² ditu. Haietatik 700,65 m² elizarako bidean dauden etxeen atzean berdegunea egiteko dira. Berdegunea 605,74 m²-ko azalera izanen du. Beraz, 1.306,39 m² erabilera publikokoak dira eta gainontzeko 2.528,83 m²-ak etxebizitza erabilera pribaturako izanen dira. Haren barruan etxebizitzarako gehienez 900 m² eraiki ahalko dira; betiere, beheko solairua, lehen solairua eta teilatupea izan beharko dituzte. Mariñelaren kale berriaren izena zein den oraindik zehaztu gabe dagoela azaldu du. Herriko guztiek San Pedro izena dute, baina berriari toponimoaren izena, Elizaldea, emateko aukera dagoela jakinarazi du.

AURRERA IRAILAREKIN!



13 Udaberri Loredenda
Akeita kafetegia
Allianz aseguruak
Arkatz Liburu-denda
Arkupe altzariak
Asensio Moda
Bengoetxea oinetakoak
Cristina janari-denda
Deportes Lezea kirolak
Ekin Moda
Gautxori Taberna
Gertu Sakana
Hiruon harategia
Iker Kirolak

Inmobiliaria Agurain
Iulene
Izara Cortina-Stor
Joselen Moda
Katuka
Mari Carmen
Marigorri
ML Moda gizonezkoa
ML Moda emakumezkoa
Next Movil
Larka
Lasa Kirolak
Liburunda
Lorea loredenda eta belardenda

Pinpilinpauxa
Ramos Etxea
Ramos elektrizitatea
Santa Cruz altzariak
Santa Cruz sukaldeak
Sakana optika
Sarabe belardenda
Sare oinetakoak
Scooby Txakurren ile-apainketa
Sorkunde harategia
Tu Tienda Especial
Xagu Informatika
Txartel
Txikitxo

**ESKOLARA ITZULERA ALTSASUKO
MERKATARITZAREKIN**



Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako jarduketa

KOLABORAZIOA

Lexia konposatuak Sakanan (I)

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Honako izenburu ponpoxo honekin, Sakanan euskal hitzunik baliatzen edota baliatu dituzten hitz soila bera baino zerbait gehiago diren lexikoaren arloko burutzeak izanen ditudala kontuan esan nahi dut. Guztiak (lokuzio, esapide edo esamoldeak, aditz perifrasiak), orduan, hitz bakar batez baino gehiagoz izanen dira osatuak.

Aditzera bota (Burunda) Zeharka jakitera eman, aditzera eman. Argi eta garbi izan gabe ere, zerbait adierazi. *Ez ginduen erabat argi esan, beya aditzera bota ginduen ez gindala afaltzea etorriko* (Urdiain) (Ez genuen erabat argi esan, baina aditzera bota genuen ez ginela afaltzea etorriko). *"Dar a entender"*.

Aditzera eman (Aranatz, Arakil) Ez da kasu honetan ohikoagoa den 'jakinarazi, azaldu, jendaurrean zerbait agertu', neurritz kanpoko moduan, oso nabarmen, ibiltzearen zentzuan baizik. Mundu guztia konturatzeke moduan ari izan, ahoz zein ekintzaz. Lehen osagaiak zer galderari erantzuten dio, beraz izena dugu. *Beti aitzera ematen; ezin normal jantzi ta*

ezin ixilik yon. (Beti aditzera ematen; ezin normal jantzi eta ezin isilik egon). *"Llamar la atención, dar que hablar, posturoo"*. Lizarragan pluralean lehen osagaia, aaitzerak, aurrekoaren zentzuarekin, "sugerir".

Aditzera(k) eduki (Ergoiena) Aditzea izan, entzutez jakin. *Aaitzera dakat falsue dala, aaitzerak battut falsue dala.* (Aditzera daukat faltsoa dela, aditzerak baditut faltsoa dela) *"Haber oído que, tener conocimiento de, tener noticias de"*.

Aditzera onekoa/tzarrekua izan (Sakana) Ospe ona edo txarra izan. *Ni, baeza de, ez nitzekek asko fiyetuko orreki, aitzera txarrekue dek eta!* (Ni, badaezpada ere, ez nintzatekek asko fidatuko horrekin, aditzera txarrekua duk eta!) *"Tener buena o mala fama/reputación"*.

Aditzeraz jakin/ezagutu (Sakana) Nonbait aditu duelako jakin. Aditzea izan. Lehen esaldia Etxarri Aranazkoa eta Lizarragakoa bigarrena. *Esaten ai zariena, aitzeras beño ez tikiyet.* (Esaten ari zaretena, aditzeraz baino ez zakiat). *Aaitzeras besteek ez*



tot ezaautzen (Aditzeraz besterik ez dut ezagutzen). *"Saber de oídas"*.

Aho leuna eduki (Sakana) Hitz goxoak baino esaten ez dituenari egokitzen zaio, losintxaria denari. Pertsonaren fidagarritasunarekin lotzen da, 'aho leuna' duena ez baita batere fidatzekoa. Bada esamolde honekin lotura estua duen esaera zaharra ere Etxarri Aranatzan. Bertan izena aldatu da (aho > hitz) eta aditza (eduki) elipsian dago esaera zaharretan ohikoa den moduan: *Itzek launek eta putzek miñek!* (Hitzak leunak eta putzak minak!) *Gauz oniako ago launegiye zikon orrek. Ni bintzet ez nitzekek fiyetuko berakin.* (Gauza onerako aho leunegia zeukan horrek. Ni behintzat, ez nintzatekeen fidatuko berarekin). *"Pelota, lameculos"*.

Aho onetik jakin (Sakana) Informazio iturri ona eta ziurra erabili izana adierazten du esamolde honek. Zalantzarik gabeko informazioa jaso. Guk geuk zuzenean zerbait jakin edo ikusi izan bagenu bezala. *Ez nengoban bertan istripube gertatu zanien, beye ago oneti jakindu yet nola izendu zan.* (Ez nengoan bertan istripua gertatu zenean, baina aho onetik jakin diat nola izan zen). *"De buena tinta"*.

Aho txikiarekin / handiarekin esan (Sakana) Ziurtasun maila adierazten dute esamolde hauek. Lehenak ia batere ziurtasunik ez dela eta, bigarrenak, aldiz, ziurtasun osoa, erabat konbentziturik. *Esan, esan dik etzi guuki mendie fanen dala,*

beye ago txikiyaki esan dik. Gios, gutxi fiye! (Esan, esan dik etzi gurekin mendira joanen dela, baina aho txikiarekin esan dik. Geroz, gutxi fida!). *Nik ez nitek bee kontra jokatuko, ago aundiyaki esan zieguk ta ontuek ekarko ttubela.* (Nik ez nitek bere kontra jokatuko, aho handiarekin esan ziguk eta ondoak ekarriko dituela). *"Decir algo con/sin convencimiento"*.

Aho zulora begira egon/jarri (Aranatz, Arakil) Sakana erdialdean, norbaitenganako mirespena adierazten du. Norbait hitz egiten egonen balitz bezala eta besteok hari begira, txunditurik esaten duenagatik edota, besterik gabe, erabat erakartzen gaituelako. *Itz eitten asten danien, mundu guzie ago txulua beire yoten zikiyok.* (Hitz egiten hasten denean, mundu guztia aho zulora begira egoten zaiok). *"Estar embelesado"*.

Ahoko zuloan utzi, (Esku-) Eskura jarri (Sakana) Kiroletan erabiltzen dira gehienbat, pilotan batez ere. Tantoa, gola edo beste egin beharreko zerbait oso era errazean utzi edo eduki. Oso erraz jarri zerbait. Oso zabaldua dago. Euskaltzaindiaren Hiztegian eskura etorri: "ad. Norbaiti zerbait eskueran gertatu". *Erraz eitten zittuk tantuek Irujok, pillota agoko zuluen uzten ziobiek geyenetan ta.* (Erraz egiten ditik tantoak Irujok, pilota ahoko zuloan uzten ziotek eta). *Pillota guziek eskue jarri doozkiyok! Nola nei dek ola iraztie?* (Pilota guztiak eskura jarri dizkiok! Nola nahi

duk horrela irabaztea?). *Esku-eskue izendu ttuk ik beti bizitzeko bier dien guziek!* (Esku-eskura izan dituk hik beti bizitzeko behar diren guztiak!) *"Dejar a huevo, en bandeja"*.

Ahotik hortzera, Ahotik ahora (Aranatz, Arakil) Hitzetik hortzera. Erantzuna bat-batean, pentsatzeko betarik izan gabe, ematen dela adierazten du. Normalean 'bota' aditzarekin osatzen da, baina 'esan' edo 'erantzun' aditzak ere erabiltzen dira. Lehen esaldia Aranatz-Arakilgoa dugu eta bigarrena Satrustegi euskaltzain arbazuarra zenaren idatzi batetik hartu zuen Andres Iñigok. *Ez zioban iye betaik eman akatzeko esaldiye. Agoti ortzia yantzun zizkiyoban nei zittubenak esaten.* (Ez zioan ia betarik eman akabatzeke esaldia. Ahotik hortzera erantzun zizkioan nahi zituenak esaten). Herritan iritzi batera heltzea zenbat gostatzen den badakigu. Hauze da, izan ere, herri txikitako problema haundi bat. *Agotik hortzera ez dira elkarrez fiatzen.* Ahotik ahora ere erabiltzen da aipatu eremuetan. Euskaltzaindiaren Hiztegian jasota dago, baina "ahoz aho" esanahiarekin: Eta gurearen esanahiarekin berarekin Mezkititzen: "...: Zer konprenditzen dezu, zer erranai du nazionalista? Eta agotik agora erran zion: 'Oño, amar al nazon'..." (Zer ulertzen duzu, zer erran nahi du nazionalista? Eta ahotik ahora esan zion: 'Joño, amar a l(a) nación'...). *"De sopetón, sin pensarlo"*.

DUELA 25 URTE...



Lakuntzako erretaula garbitzen

Lehenik izan zen zorua konpontzea, ondoren, teilatua, paretak... Harik eta Lakuntzako elizako erretaulari txanda iritsi zitzaion arte. XVII. mendekoa, egurrez egina, hautsak eta pipiak janda zegoen. Iruñeko enpresa batek zuen konponketen ardura, eta horretan Arte Ederretan erretrazazioa ikasitako hiru emakumezko ari ziren. Adierazi zuten, erretaularen zatirik hondatuen beheko partean zegoen. Bitartean, elizan jarritako porlanezko zorua finkatzen ari zen; zurezkoa jarriko zuten aurrerago.

FESTAK

IRURTZUN ETA ARAKIL BERTAKO GANADU AZOKA

IRAILAK 15 Ostirala

ITXASPERRIN

18:00 Nafarroako ardoen dastaketa.

IRAILAK 17 Igandea

AZOKA IRURTZUNEN

10:00-14:30 Azoka:

produktuak eta artisautza erosteko aukera eta abereen erakusketa, plazan.

Goizean zehar, haurrendako joko eta tailerrak, taloak, soka lantze tradizionala, forja artisauaren erakustaldia, tailer eta ofizioak, kale animazioa eta abar.

11:00 Artzai Txakur Hezte erakustaldia, Aritz Ganboa artzaiaren eskutik, frontoiaren atzealdean.

12:00 Artzai Gazta Dastaketa eta Herri Txapelketa.

15:00 Herri bazkaria, inguruko ekoizleen



UTZITAKOIA

HIRIBERRI ARAKIL Irailaren 7tik 10era ospatu zituzten festak Arakilgo herrian. Besteak beste, mozorro eguna izan zuten, herria itxuraldatuz.

produktuekin osatutakoa, Pikuxar elkartearen.

18:30 Bazkalostea: Arakil eta Irurtzun arteko Herri Kirol desafioak eta Harri Jasotzaileen Erakustaldiak.

EGIARRETA

FESTAK

IRAILAK 22 Ostirala

15:00 Herri bazkaria.

17:00 Etxajua, mozorroak eta txokolatada.

17:15 Japoniar bonbak.

17:30 Mus eta briska lehiaketak.

Puzgarriak eta buruhandiak.

20:00 Modestorekin dantzaldia.

21:30 Zezensuzkoa.

22:00 Afaria.

23:00 Bingoa.

00:00 Modestorekin dantzaldia.

03:00 Festa jokoak.



ALTSASU Txupinazoaren ondoren, Kantuz kantukoak elkartu ziren.



ALTSASU Peñen bajadikaren ondoren, zezensuzkoa atera zen.



23/10/01

EUSKAL HERRIKO ERDIGUNERA IBILALDIA

ANTOLATZAILEAK



FESTAK

ALTSASU FESTAK

IRAILAK 15 Ostirala

**JAI BATZORDEAREN
ALTSASUKO PEÑEN EGUNA**
09:30 Dianak Altsasuko Musika
eta Dantza eskolako txistu
ikasleekin.

10:00-13:00 XCIV Altsasu
Txirringularitza txapelketa.
Altsasuko Kirol Elkartek antolatuta.
Kalejira, La Encina Kultur
Elkartearen egoitzatik.

La Encina Kultur Elkartek antolatuta.

11:30 Beti Jaten Elkartek
eskainitako auzatea, Foru plazan.

12:00 Elvi Sabelitzuna,
Zumalakarregi plazan.

Herriko nagusiei omenaldia:
Abardia jarriko zaie etxean, Udal
Musika Eskolak girotua.
Herri kirol erakustaldia eta trontza
apustua, plazan.

Jai Batzordeak antolatuta.
Trontza apustuan izena ematea: sare
sozialetan edo 640 044 424
telefonoan.

13:00 *Neska** gazteok *Utopiak
lehertzearaino: Baterajotzera! eta
Zaintza eskubide kolektiboaren,
Greba Orokor Feministara!
photocall-a*, Herri Txokoan.

12:00-14:00 Eguerdiko emanaldia:
Alurr Dantza taldearen Laia dantza
emanaldia, Foru plaza.

14:30 Nagusien omenezko
bazkaria.



ALTSASU 2022an jaio ziren haurrei ongi etorria egin zieten, zapia jarritz.

**SAKANAKO
ERRALDOIAK**
Kolorereta itzazu



ESKUALDEKO
LIBURU-DENDA HAUETAN SALGAI:
BURTZUN ELUSTONDO ETA MARTXUETA
ETXARRI ARANATZ KAXETA
ALTSASU ARKATZ ETA LIBURUNDA

gk GISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

Ondoren, Fidelekin dantzaldia,
Iortia kultur gunean.

15:00 Makarronada, karpan.

Jai Batzordeak antolatuta.

Tiketak: Gure Etxean irailaren 8an,
9an eta 12an, 10 eurotan.

16:30-17:00 Altsasuko Peñen
kafea, Foru plazan.

Altsasuko Peñak-ek antolatuta.

17:30-20:00 Elkartepoteoa eta
merienda, Altsasuko Peñak-ek
antolatuta, Foru plazan hasi eta
Zumalakarregi plazan amaitu.

Merienda ibilbidean zehar.

17:00-21:00 Kalejira, La Encina
Kultur Elkartearen egoitzatik.

La Encina Kultur Elkartek antolatuta.

18:00 Irurtzango Orritz pertsonaia
mitologikoekin kalejira, plazan.

19:30 Buruhandiak, Foru plazan.

19:30-22:00 Edelweiss orkestrarekin
dantzaldia, Foru plazan.

20:00 Peñen jaitsiera,
Zumalakarregi plazatik.

Altsasuko Peñak-ek antolatuta.

21:15 Peñen iritsiera Foru plazara.

21:30 Altsasuko zortzikoa
eta Larrain dantza, Burundar
txistulariekin eta Etxarri gaita
jotzaileekin.

22:00 Zenezuzkoa, Foru plazan.

22:00-00:00 Goxo txarangaren
kalejira.

Gazteria Zerbitzuak antolatuta.

23:00 Kontzertuak: Ibil bedi eta
Raimundo el Canastero taldeak,
karpan.

Jai Batzordeak antolatuta.

23:30-02:00 Edelweiss
orkestrarekin dantzaldia, Foru
plazan.

02:00/04:00 Itaiaren etxeratze
kolektiboa, karpan.



ALTSASU Ezkil joleek txupinazoa bota zuten eta hurrengo egunean,
irailaren 14an, urteko azken errepika egin zuten.

IRAILAK 16 Larunbata

09:30 Dianak Altsasuko Gaiteroekin.

10:00-13:00 Eskolarteko
txirringularitza proba,

Zumalakarregi plazan.

Burunda Txirringularitza Elkartek
antolatuta.

11:00 Haize Berriak Bandarekin

kalejira.

11:30 La Encina Kultur Elkarateak eskainitako auzatea, Foru plazan.
12:00 Apar festa, Baratzeko Bide plazan.

Bertso poteoa: Idoia Granizo eta Ainara Ieregi; gai jartzailea: Ekain Alegre.

13:00 Eguerdiko kontzertua: Haize Berriak Banda, Foru plazan.
Arbizuko Borroka Klubaren erakustaldia, karpan.

14:00 AHTaren aurkako plataformarekin herri argazkia.

14:30 VI. Herri bazkaria, Pancho Balbuenak girotua, Zelandi kirolegian.

Tiketak: lortia kultur gunean, 15 euro helduek eta 10 euro 12 urtetik beherakoek.

16:30-20:00 Peñen kafea, merienda eta kalejira, Foru plazan hasi eta Zumalakarregi plazaraino. Altsasuko Peñak-ek antolatuta.

18:00 Zirika Zirkus konpainiaren *Azken fakirra* zirku ikuskizuna, Zumalakarregi plazan.

18:30 *Leioako 5ak aske! Errepresio politikoa gelditu* manifestazioa, Zelandin.

19:30 Buruhandiak, Foru plazan.

19:30-20:30 Kontzertua: Kai Nakai, Foru plazan.

20:00 Peñen jaitsiera, Zumalakarregi plazatik.

Altsasuko Peñak-ek antolatuta.

21:15 Peñen iritsiera Foru plazara.

21:30 Altsasuko zortzikoa eta Larrain dantza, Burundar txistulariekin eta Etxarri gaita jotzaileekin, Foru plazan.

22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.

22:30 Kontzertua: Bulego. Ondoren, DJ Davila (04:00ak arte), Foru plazan.

23:00 DJ Atenenas eta DJ 3haiZra, karpan.

Jai Batzordeak antolatuta.

Tekno gaua, gaztetxean.

Jai Batzordeak antolatuta.

00:00-02:00 Peñen igoera, Foru plazatik Zumalakarregi plazara.

Altsasuko Peñak-ek antolatuta.

02:00/04:00 Itaiaren etxeratze kolektiboa, karpan.

IRAILAK 17 Igandea

ALTSASUKO GAZTEAK PEÑAREN 50 URTEURRENA

09:30 Dianak Burundar txistulariekin.

10:30 Hamaihetakoa, karpan.

Jai Batzordeak antolatuta.

11:30 Amandrea Elkarateak eskainitako auzatea, Foru plazan.

Kalejira txarangarekin.

Jai Batzordeak antolatuta.

11:00-14:00 Munduko Arrozak.

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak, Sakanako Harrera Harana plataformak eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak antolatuta. 14:00etan dastaketa, platera euro bat.

11:30-14:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira, Altsasuko eta Etxarriko gaiteroak lagunduta, lortia zabalgunean hasi eta Foru plazaraino.

13:00 Eguerdiko kontzertua: Trasteando taldea, Foru plazan.

14:00 Altsasuko Gazteak peñaren elkarretaratzea, txoznan.

Jai Batzordeak antolatuta.

14:30 Altsasuko Gazteak peñaren argazkia, Bahía dantzalekua eta INEM zenaren egoitzan.

Jai Batzordeak antolatuta.

15:00 Altsasuko Gazteak peñaren bazkaria, karpan.

Jai Batzordeak antolatuta.

Tiketak: Arkangoa, Txalaparta eta Lezea eta Gure Etxea peñen ordutegian; ikasle eta langabetuak 15 euro, langileak eta jubilatutak 20 euro.

16:00-20:00 Peñen kafea, merienda eta Skapaie

Elektrotxarangierekin kalejira, Foru plazan hasi eta Zumalakarregi plazaraino.

Altsasuko Peñak-ek eta Jai Batzordeak antolatuta.

18:00 Otadiako Santo Kristo LII. Pilota Txapelketa, Burunda frontoian.

Altsasuko Kirol Elkarateak eta Pilotajauku Elkarateak antolatuta.

Play Back lehiaketa eta Txokolatada, Baratzeko Bide plazan.

Kukuerreka Elkarateak eskainia.

19:00 *Denak Etxera* kontzentrazioa, Foru plazan.

Sarek antolatuta.

19:30 Buruhandiak, Foru plazan.

19:30-21:30 Kontzertua: Tapia eta Leturia, Foru plazan.

20:00 Peñen jaitsiera, Zumalakarregi plazatik.

Altsasuko Peñak-ek antolatuta.

21:15 Peñen iritsiera Foru plazara.

21:30 Altsasuko zortzikoa eta Larrain dantza, Burundar txistulariekin eta Etxarriko gaita jotzaileekin.

22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan.

Ondoren, festen agurra, azken petardo sorta eta su artifizialen ikuskizuna, udaltxea aurrean.

22:30 Peñen kalejira.



LARRIALDIAK

☎ 112

INFORMAZIO-GUNEA

📅 Irailak 15

🕒 19:30-24:00

📍 Gure Etxea kanpoan
(Emagin Elkartea)





Iraultza egin nahi zuten

1973. urtean Altsasuko zortzi eta hamar gazte kuadrilla artean elkartu ziren eta festetan lehenengo aldiz Altsasuko Gazteak peña bezala atera ziren. Peñen "boom-a" izan zen garaian, eta festak ere beste modu batera bizitzen ziren

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU Altsasuko peñen historia "gorabeheratsua" izan dela kontatu dute Satur Leozek, Ramon Paniaguak eta Jabi Unamunok. 1973. urtean oso gazteak ziren, 17 eta 18 urte bitarte zuten, eta "aldaketak zetozen": "Zerbait

desberdin izan nahi genuen, iraultza egin nahi genuen, eta egin genuen". Iraileko Altsasuko festen aurretik bilerak egin hasi ziren zenbait kuadrilla eta festetan zortzi eta hamar kuadrilla artean peña bezala ateratzea erabaki zuten: Altsa-

suko Gazteak peña sortu zuten. Aurten 50 urte betetzen ditu peñak, eta etzi, igandea, ospatuko dute urteurrena. "Erronka izango da ikustea gaztetxo horiek, hau dena egin zutenak, nola irauten duten 50 urte beranduago".

1950ko eta 1960ko hamarkadetan peña asko zeuden Altsasun; ondoren, peñen kopurua jaitsi zen eta gero berriz gora egin zuen. 1972. urtean Lagun Onak peñaren beteranoak baino ez ziren ateratzen. Egoera eta gazteen nahiak ikusita, 1973an zenbait gazte bildu ziren peña berri bat sortzeko asmoarekin, eta urteko festetan Altsasuko Gazteak peña bezala 140 bat lagun atera ziren.

'Altsasuko Gazteak!'

Lehenengo urte horretan, duela 50 urte, ereserkirik gabe atera ziren kalera. "Ez zigun denborarik eman, zenbait bilera egin genituen aurretik eta festetan ateratzea erabaki genuen". Hurrengo urtean, 1974an, ereserkia mustu zuten: Enrike Zelaiak akordeoilari altsasuarrrak konposatutako musika, eta 1975. urtean eta Jose Mari Satrustegi etnografo arbazuarrak letra sortu zuten. "Lehenengo ereserkia euskaraz izan zen": *Altsasuko Gazteak! Atzo bat eta gaur bi, denok elkarrekin, umorez behintzat ez da, gu bezalakorik, eup!* dio ereserkiaren zati batek. Peñak 25 urte bete zituenean omenaldia egin zieten ereserkiaren sortzaileei.

"Izena ez dakigu nola sortu zen eta blusa gorria ere, ba ez dakigu, bazegoen koadroduna, beltza... bada gorria. Zapi berdea askoz beranduago iritsi zen". Garai horretan festetan txuriz janzten hasi ziren, "Iruñeko sanferminetako eraginagatik edo". Baina baziren eguneroko arroparekin janzten zirenak ere. Armarría Altsasukoa da, gainean Altsasuko Gazteak jartzen duela. Aurten, 50. urteurren harira armarrí berritua atera dute, baita *merchandising* guztia ere: kamiseta eta bisera.

Altsasuko Gazteak peña emakumezko bazkideak izaten lehenengo peña izan zen ere. "Asanblada asko egon ziren. Baziren nahi zutenak eta ez zutenak nahi". Ana Arregi eta Ester Arregi izan ziren lehenengotarikoak, peña sortu eta "zenbait urtetara". "Aurretik ere emakumeak etortzen ziren peñan, baina peñakideen bikotekideak zirelako, amodiogatik. Emakumeekin harreman oso handia genuen, baina egia da haien parte hartzea ez zela hain handia". Urteak pasa behar izan ziren emakume peñakideak izateko.

Lotsa pixka batekin eta anekdota moduan, Altsasuko Gazteak peñako sortzaileek bi urtez antolatatu zuten miss txapelketa gogorra ekarri dute: "Benetan lotsatzen gara orain. Baina garai horretan gauza horiek eramaten ziren: Erregina eta ohorezko dama". Bi urtez ospatu zuten.

Haliday taberna, gero Bahía izan zena, eta ondoren Aralar jatetxea, eta duela gutxira arte INEM egoitza bezala ezagutzen zena, Altsasuko Gazteak peñaren nolabaiteko egoitza zen. Bertan jaialdiak antolatu zituzten eta "beti beteta" zegoen. Esaterako, besteak beste, Duo Dinamico talde ospetsuak jo zuen bertan. Eraikin horretako eskaileretan egingo dute, Altsasuko Gazteak peñaren familia argazkia igandean.

Jaiak

"Parranda handiak egiten genituen". Peñako kide izateko kuota ordaintzen zuten eta festen aurretik dirua jarri izan zuten noizbait ere. "1973an plazako musika 1:15ean amaitzen zen. Orduan, asko mugitzen ginen. Udalak pentsatu zuen gurekin ongi eraman behar zela, eta aurkezten genituen ekimen guztiak onartzen zituen". 1973. urtean peña bakoitzak, Lagun Onak-ek eta Altsasuko Gazteak-ek, 15.000 pezeta jaso genituen (90 euro inguru) eta hurrengo urtean asko handitu zen aurrekontua".

1973an Altsasuko Gazteak jaio zen, eta hurrengo urtean, 1974an, Muthiko Alaiak peña sortu zen. "Aurretik bazegoen Muthiko Alaiak peña, baina galdu zen, eta 74an berreskuratu zuten. Zergatik? Bazegoelako beste gazte talde handi bat peña bat nahi zuena". Muthiko, modu herrikoian peñari deitzen zaion bezala, aldarrikatu zuten. Garai horretan peña bakoitzak bere txaranga zuen, eta musikariak

TX
TXARTEL
HARRIEN EGITEKIA

Ongi pasa festak!

www.txartel.net

Kaixo
Kafetegia - Jatetxea

Ongi pasa festetan!
Pintxoak, bazkariak, afariak eta ogilartekoak

García Ximénez 20-22
948 469 124 Altsasu
www.restauranteikaixo.com

MAPFRE
Ongi pasa festetan!

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM
jimazpr@mapfre.com · 948 563 354
San Juan 48 behekoa · Altsasu



festak iraun bitartean Altsasun gelditzen ziren, "gastu guztiak ordainduta, hoteletan eta pentsio osoan". Incansables Txarangari aipamen berezia egin diote Leozek, Paniaguak eta Unamunok: "Atsasukorendako oso garrantzitsua izan zen". Kontratututako orduaz gain herriko kaleetatik jotzera ateratzen zirela esan dute. "Oso onak ziren".

1970ko hamarkadako erdialdean, beraz, hiru peña zeuden Altsasun, Altsasuko Gazteak, Muthiko Alaiak eta Lagun Onak, eta batzorde batean elkartzea erabaki zuten: "Konfrontazioak ez zuten tokirik, eta elkarrekin gauza gehiago egin genezakeen". Batzordea "oso interesgarria" izan zela azaldu dute: "Elizaren atzean berbenak antolatzen ziren, eta txosna jarri genuen ere. Diru nahikotxo atera genuen horrekin ere". Sokamuturra egiten zuten elizaren atzean ere, Zubetia plazan. "Batzordearen alde negatiboa, agian, peña bakoitzak independentzia galdu zuela da", gaineratu du Unamunok.

"Festak asko disfrutatzen genituen". Festa kalean egiten zen. "Gaua hori zen: piperoz piper joan eta zurrakapotea, doan, edan". Garai horretan hogeit bat piper zeuden herrian, eta festetan, plazako musika bukatzen zenean, "eta tabernetan musikarik ez zegoenez", piperoz piper joaten ziren. "Asko" dantzatzen zutela kontatu dute ere. Galdu den



beste ohitura bat Dianak ziren: "Derrigorrezkoak ziren, 09:00etan, eta joaten ez zenak isuna ordaindu behar zuten". Dianen kontura "dirutza" lortzen zutela azaldu dute Altsasuko Gazteak peñaren sortzaileak.

Etapak

"Peña bat sortzen zenean nahi genuen desberdinenak izan, berezianak... Horretarako sortzen ziren peñak". Sortu eta hurrengo urteetan peña horrek gora egiten zuen, baina "olatuak" daudela azaldu dute hiru peña-kideek. "Altsasukorenean krisi bat egon zen 1980ko hamarkadan, eta hortik Ajolabaiko sortu zen. Altsasuko erdi hilda zegoen". 1985. urtean sortu zen Ajolabaiko. Bizitzaren etapak dira. "Lehen peña bakoitzak bere txaranga eramaten zuen, gero denak elkartu ziren txaranga bakar batean...".

Leozek eta Unamunok blusa janzteari "aspaldi" utzi zioten, baina Ramon Paniaguak 50 urte daramatza festetan txuriz eta gorritz janzten. "Ahal dela jarraitu behar dugu. Pila bat disfrutatzen dut". 50. urteurrenean, igandean, "garaiko egun bat" gogoratzea proposatu zuen Paniaguak antolakuntza asanbladetan, baina dianak ez ezik, zenbait ekimen izango dute Altsasuko Gazteak peñako beterano eta gaztetxoek: hamaiketakoa, argazkia, kalejira, bazkaria eta bajadika. "Atera beharko gara, bai. Hainbeste programazioarekin ez dakigu nola iritsiko garen igandera". Aurretik, herri bazkariaren presaketan laguntzen dute hirurek, gainera.



Munduko Arrozak ekimenaren aurkezpena.

Zumalakarregi plaza, arroz dastategi bihurtuta

Munduko Arrozak ekimena hilaren 17an, domekan, izanen da, 11:00etatik aurrera

ALTSASU

Aichetou eta Salamboha sahararrik dira, eta arroza haragi edo arrain bolekin prestatuko dute. "Sahararren ohiko jaki bat da. Baina oraindik ez dakigu zerezko bolak egingen ditugun. Domekan etorri beharko duzue ikustera". Burunda mendebaldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuko Ainarak jakinarazi du arroza muskuiluekin egingen dutela. Georgina Pastranak, berriz, "Nikaraguan eta Erdialdeko Amerikan ohiko jakia den gallo pintoa prestatuko du. Pozik da Pastrana bere estreina-ko Munduko Arrozak ekimena delako. Horietaz aparte, Errumania, Maroko, Peru, Sakana Harrera Harana eta Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuko arroza dastatzeko aukera izanen da. Gainera, Sakanako pentsiodunen mugimenduko kideek sukaldari guztiendako bazkaria, arroza, prestatuko dute.

Altsasun Munduko Arrozak ekimena egiten den zazpigarren

aldia da aurtengoa. Festen testuinguruan, eta espazio publikoan, Altsasuko aniztasunaz gozatzeko eta altsasuarrak elkar ezagutzeko gonbidapena da. Zumalakarregi plazatik pasatzen direnek aukera izanen dute sukaldariei errezetaren inguruko azalpenak eskatzeko, arrozak nola prestatzen diren ikusteko eta han elkartzen den jende guztiarekin hizketatzeko. Dastaketa ordua iritsi bitartean, Zumalakarregi plazan zurrumurruak desaktibatzeako tailerra izanen da. Zurrumurruen kontrako bi agente sakandar arduratuko dira tailerra emateaz. "Pertsonen arteko harremanetan eragin negatiboa duten esan horiei nola aurre egin ikasteko aukera izanen da", azaldu du Begoña Zestau Baraibarrek, Sakanako Mankomunitateko Anizartean kulturartekotasun zerbitzuko teknikariak. Horrekin batera, plazan haurrendako jolas libre eta kooperatiboak izanen dira. Musikaz girotuta egonen da sukaldarien jarduna.

salmen
espazioak eraikitzen

Ongi pasa festak!



Emakumea Ergoienako Biran. ARTXIBOA

ATLETISMOA Sakanako emakumeen atletismo eskolaren txanda

Urrian hasiko da Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskola. Aurten 12 urte beteko ditu, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak 2011n antolatu baitzuen lehenengoz, orduko emakume talde baten eskariari erantzuna emanez. Korrika ikasteko teknikak ikasi nahi zituzten, eta emakumeak elkartzeko beharra ikusten zuten, ezagunak egin eta korrika egitera edo lasterketetara elkarrekin joateko.

Urrian hasiko da eskola, zehaztu gabeko egunean, obrak tarteko. Ostiraletan izango da, 17:00etatik 18:15ak arte, ekainaren 7ra arte. 18 urtetik gorako emakumeek eman ahal dute izena. Prezioa 50 eurokoa da. Izena ematea zabalik dago (kirolak@sakana-mank.eus, 948 464 866).

Ergoienako Bira, ate joka

Irailaren 23an XVII. Ergoienako Bira-Merceroren Oroimenezko 3. Saria hartuko du Unanuk, Ergoienako hiru herriak batzen dituen (8,5 km). Egunean bertan eman behar da izena, Unanun.

Beriainera azkarren igotzeko prest

MENDI LASTERKETAK Igandean 190 korrikalarik hartuko dute parte Uharteko Arakil Beriain Km Bertikalean. Gizonezkoetan Beunza eta Becerra eta emakumezkoetan Ordoñez eta Pereiro dira faborito nagusiak. Korrikalari sakandarrek ez dute huts egingo

Maidar Betelu Ganboa UHARTE ARAKIL Irailaren 10ean, igandea, jokatuko da Uharteko Arakil Beriain Km Bertikalean, aldi berean Nafarroako Km Bertikalen Txapelketa izango dena. Aralar Mendik antolatu du. 190 korrikalarik eman dute izena. Uharteko Arakildik abiatuta, Itxesi igerilekue-tatik mendira sartu eta 5 km aldatu eta gogor dituzte aurretik (1:023 m desnibel +), Beriaingo puntara heltzeko.

FEDMEekin afera

Aralar Mendiko Juanjo Goikoe-txea Berasategik azaldu duenez, Uharteko probarekin batera Espainiako Km Bertikalen Txapelketa jokatuko da Villanuan, "eta parte hartzean nabaritu da. Hala ere, oso pozik gaude, 190 korrikalarik proba bertikal batean izena ematea handia delako".

Hasiera batean, maiatzean zen jokatzea Espainiako Txapelketa, "baina FEDMEk (Espainiako Mendi eta Eskalada Federazioa) arazo batzuk izan zituen, eta proba gure asteburuan jarri zuen. Gurea Nafarroako Txapelketa denez, Nafarroako Federazioak data mantentzea erabaki zuen, eta korrikalari nafarrei selekzioan parte hartzeko edo Uharteko Arakilera etortzeko aukera eman zien. Horietako ba-



Maria Risco uharterra, 2022ko edizioako azken malda gogorretan. ANDONI, ARALAR MENDI

tzuek, esaterako Mikel Beunzak eta Maria Ordoñezek, gurera etortzea erabaki dute, eta hori eskertzea da" azaldu du Goikoe-txea. Nafarroako eta Euskadiko selekzioek Espainiako Bertikalen Txapelketan aritu beharra dute, federazioek bertan lortutako emaitzen arabera jasotzen baitituzte diru laguntzak. "Uste dugu gauzak ez direla ongi egin, FEDMEk herrialdeetako txapelketak errespetatu behar baitzituen. Arraroa izan da, eta honekin guztiarekin, aurtengoa eromena izan da" aitortu du.

Faboritoak

Beunzarekin eta Ordoñezekin batera (2021eko irabazleak izan ziren), Walter Becerra eta Inma Pereiro daude igandean Beriain Km Bertikalean irabazteko faboritoen artean, baina sorpresak egon daitezke. 2022an Albiko Didier Zago korrikalari handiaren apopiloa den Loic Robert frantziarra (40:21) eta Oihana Azkorbebeitia (48:58) gailendu ziren, azken hori, bigarren. Korrikalarien artean sakandar dexente daude. "Sakandarrek ez dute huts egingo, eta eskerrak".

Eguraldiarekin bueltaka

Eguraldia da antolakuntzaren buruko min garrantzitsuenetakoa. "Azken egunetan eguraldi iragarpena begiratzeko ari naiz etengabe, eta ez dago argi. Ekaitzak hegoaldeko etortzen direnean, zaila izaten da zer eguraldi egingo duen asmatzea. Espero dugu lasterketa jokatzen den orduetan ateri egotea. Ea nahia betetzen den" opa du Goikoe-txea. Eguraldiaren aurrean ezin da ezer egin, "baina buruhaustea ematen dizkigu. Ez soilik korrikalariendako, kontroletan daudenendako bizpahiru ordu euripean egotea ez baita oso atsegina. Beraz, ea euriaz libratzen garen" espero du.

Jende asko joaten da Beriainera proba jarraituz. "Gehienak Beriaingo azken malda gogorrean jartzen dira, korrikalari gehien sufritzen duten tartean, normala denez".

Korrikalariak 10:00etatik aurrera aterako dira, binaka, 30 segunduro. Azken hamarrak, aldiz, minuturo. "Irteera ordu beteko kontua izaten da. Behin Beriainera helduta, nor bere kabuz jaisten da, eta ordurako plazako auzatea prest dago. Sari ematea 13:30ean egingo dugu".

Gonbidatuta

Egun honetan giro ederra egoten da Uharteko Arakil. "Korrikalariak gustura egoten dira auzatean. Giro ona sortzen da. Eta Uharteko jendea ere gustura egoten da. Egun polita da etortzeko. Sakandar guztiak gonbidatuta daude".

Guztia behar bezala ateratzeko, 50 boluntario inguru egongo dira lanean. "Uharteko herriari bihotzez eskertzen diogu, ematen duen laguntzagatik". Baita babesleei ere.

Harrera beroa Imanol Erbitiri

TXIRRINDULARITZA

Aurreratuta, zitzu bizian eta ikuslezu lepo pasatu zen Vuelta igandean euskal ikurrez lepo zegoen Sakanatik. Hiriberrin harrera ikusgarria egin zioten Vueltan parte hartzen ari den herriko semeari, Imanol Erbitiri, pankarta erraldoi, bandera, musika eta dantzekin. Festak ospatzen ari zirenez, are alaiagoa izan zen harrera.



AITOR AGIRREZABAL



Vicente eta Zabaleta. UTZITAKOIA

PILOTA Aldaketa Otidiko Kristo Deuna Torneoko finalean

Altsasu Kirol Elkarteak eta Pilotajaukuk antolatutako 52. Otidiko Kristo Deuna Pilota Torneoko final handia Altsasuko festen igandean jokatu da, 18:00etan, Burunda pilotalekuan.

Bikote mistoen finalean, Pilotajaukuko Mitxelena atzelariak (gizona), Osoz (emakumea) izango du bikote, Pilotajaukuko Vicente atzelariaren eta Zabaletaren (emakumea) kontra.

Seniorren finalean aldaketa dago. Zubizarreta eta Lizeaga gipuzkoarrek Fernandez eta Loza errioxarren kontra jokatu beharra zuten, baina Fernandezek ezingo du jokatu, eta bere lekua Aingeru De la Fuentek (Irurtzun Pilota Kluba) hartuko du.

La Peluso BTT Xtreme, giro ederrean

BTT Eguraldi zoragarria lagun, 175 biker inguruk hartu zuten parte La Peluso Cycling Taldeak Irurtzunen antolatutako proba ez lehiakorrean. Patxi Cia M40 kategoriako munduko BTT txapeldunak mustu zuen lasterketa hasierako zinta

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN

Maiatzaren 13an euria mara-mara ari zuela jokatu behar izan zen La Peluso martxa zikloturista. Aldiz, eguzkiak presente egon nahi izan zuen La Peluso BTT Xtreme mendi txirrindularitza martxan. "Gaur ez gara kekatuko, egun zoragarria atera delako" zioen, irribarrez, handik hona prestakuntza lanetan zebilen La Peluso Cycling Taldeko Santi Morenok.

Patxi Ciaren ospakizuna

175 biker inguru animatu ziren proba ez lehiakorrean parte hartzera. "Kontentu gaude, joan zen urteko parte hartzearen antzekoa izan delako". Pachi Ciak moztu zuen proba hasierako zinta, eta ibilbide luzea egitera animatu zen. "Bere urtebetetzea da, eta Cerro Bayon (Argentina) M40 mailan Munduko BTT Txapelketa irabaztetik dator. Beraz, ospakizun bikoitza" nabarmendu zuen Morenok.



La Peluso BTT Xtreme lasterketa ez lehiakorren irteera. Ezkerrean, Patxi Cia.

Irurtzun inguruko paraje ederretan barna bi ibilbide antolatu zituzten: luzea (46,31 km, 1.681 m desnibela) eta laburra (38,48 km, 1.084 m desnibela). Irurtzundik aterata, Plazaolako bidea hartu zuten biker guztiek, La-

runberaino heltzeko. Mendian sartu, San Bartolomera iritsi eta bertatik Muskizera jaitsi ziren. Pista batetik Ziara heldu, eta Trinitateko iparraldean sartu ziren, Arranz eta Erasotik barna Latasara jaisteko. Urri-

zatik igota, Ihaben eta Etxalekura iritsi ziren. "Hor banatu ziren bi ibilbideak. Motzekoak Latasara itzuli ziren, eta bertatik Irurtzunera. Eta luzekoak Etxaleku eta Oskoz artean dagoen pista batetik Zarranzera jaitsi ziren. Hortik Trinitatea igo zuten, eta segidan Kaxarnara jaitsi ziren, Putreen Balkoira igo eta bertatik helmugara joateko" adierazi du Morenok.

Aldaketak

Aurten ibilbide luzea 11 km ingurutan laburtu zuten, Oskoz eta Beunza arteko mendiko tartean. "Ibilbide luzea oso gogorra denez, askok bospasei ordu behar zituzten bukatzeko, eta luze egiten zitzaigun. Horregatik laburtu dugu". Ibilbidetik gogorrera "Trinitateko igoera da, zalan-tzarik gabe. 2 km eta ia 400 m-ko desnibela du".

Gehienek, bi heren inguruk, ibilbide luzea osatu zuten. Azkarrena Patxi Cia izan zen, lau ordu eta 47 minututan. Ibilbide motzean bi ordu baino lehen iritsi ziren azkarrenak, Sergio Marigorta eta Gabriela Placencia buru zirela. Soilik hiru emakumek hartu zuten parte proban. "Emakumeen partaidetza sustatzea da gure erronketako bat". Txirrindulariek gozatu ederra hartu zuten. "Ibilbidea paregabea zen. Oso gustura ibili gara" zioten. Helmugan, parrilak sutan zituzten, txistorra eta urdaia dastatzeko. Saririk onena.



LABORAL KUTXA

Ailetz Lasaren garaipena

TXIRRINDULARITZA Larunbatean afizionatuen 34. Andra mari Sari Nagusia (113 km) hartu zuen Urdulizek. Tropela batera iritsi zen helmugara, eta esprint oso estuan Ailetz Lasa ziordiarra (Laboral Kutxa) gailendu zen. Jon Gil (Gomur Cantabria) 13. izan zen. Bestalde, Iker Mintegi (Laboral K.) zazpigarren sailkatu zen Salamancako Itzulian.

KIROL + MONITOREEN LAN-POLTSA

Gutxieneko baldintzak:

- Oinarrizko kirol titulazioa
- Euskaraz jakitea, ahoz nahiz idatziz (C1 egiaztatu beharko da).

Harremanetan jartzeko modua:

Interesa dutenek beren curriculum-a honako helbide honetara bidali beharko dute:

kirolak@sakana-mank.eus

GIMNASIA TERAPEUTIKOA**Fibromialgia arintzeko ikastaroa**

Fibromialgia, neke kronikoaren sindromea, Sentiberatasun Kimiko Anizkoitza eta antzeko gaixotasunak dituzten sakandarrak aurten ere jardura fisiko espezifikoa egiteko aukera izango dute, euren osasunari horrenbesteko onura ekartzen diona. AFINA elkarteak (Asociación Fibromialgia de Navarra), Sakanako Mankomunitatearen, Sakanako Osasun etxeen eta bestelako eragileen laguntzarekin antolatuta du ikastaroa.

Urriaren 2an hasiko dira ikastaroak, ekainera arte. Etxarri Aranatzeko eta Altsasun astelehenean eta ostiraletan izango dira (Etxarri Aranatzeko 10:00etatik 11:30era eta Altsasun 12:00etatik 13:30era), eta Irurtzunen asteartean eta ostegunetan, 10:30etik 12:00etara.

Izena ematea zabalik dago (948 464866edo kirolak@sakana-mank.eus). AFINAko bazkideek hiru hilabeteko 43,5 euro ordainduko dituzte, eta bazkide ez direnek hiru hilabeteko 70 euro.

FUTBOLA Etxarri eta Lagunek Erregionala mustuko dute

Asteburuan hasiko da 2023/2024 denboraldiko Erregional mailako liga. Joan zen denboraldian Etxarri Aranatzeko eta Lagun Arteak Preferente maila galdu zuten, aurten Erregional maila mustuko dute. Erregionaleko laugarren multzoan jokatuko dute.

Etxarri Aranatzeko Lagunak B taldea hartuko du irailaren 16an, larunbata, 16:30ean, San Donato futbol zelaietan. Lagun Arteak ere etxean hasiko du denboraldia. Taldeak jokatu beharra duen Antzeko zelaietan, baina Altsasuko festak direla eta, partida atzeratzea adostu dute bi taldeek. Partida urriaren 4an jokatuko da, 16:30ean. Asteburuan Altsasuko eta Leitzako Aurrerak husna berdindu zuten Dantzalekun.

Bestalde, Preferente mailan hirugarren jardunaldia dago jokoan. Altsasuko Ziraukiren kontra jokatu beharra duen Antzeko zelaietan, baina Altsasuko festak direla eta, partida atzeratzea adostu dute bi taldeek. Partida urriaren 4an jokatuko da, 16:30ean. Asteburuan Altsasuko eta Leitzako Aurrerak husna berdindu zuten Dantzalekun.

"Villarrealera, argi nuen. Beti dago etxera itzultzeko aukera"

JOSEBA PEREZ FERNANDEZ VILLARREALEKO FUTBOL JOKALARIA**FUTBOLA** Gazte lakuntzarrak Villarrealen bere bigarren denboraldiari ekin dio, kadeteetan. Valentziako maila handiko ligan %100 eman nahi du, eta lan ona egin**Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA**

Joseba Perez Fernandez (2008-03-05) lakuntzarrak 15 urte ditu, eta Villarreal futbol klubeko kadeteen mailako jokalaria da bigarren urtez. Gazte Berriak taldearekin infantilen mailan jokatzen ari zela, 13 urterekin hartu zuen Villarrealera joateko erabakia, bere bizitza hankaz gora jarri zuena: beste herrialde bat, beste futbol talde bat, beste ikasketa batzuk... Tamaina hartu dio Castelloneko bizimoduari eta talde horiari, baina "oso pozik" itzultzen da Lakuntzara oporretan, eta libre duen guztietan.

Lakuntzako Lagun Arteak taldean hasi zinen futboleko trebatzen, baina gero Antsoainen jarraitu zenuen ibilbidea, Gazte Berriak taldean.

Bai, baina Gazte Berriak taldean hasi baino lehen areto futboleko probatu nuen, Xotan. Ongi ibili nintzen, baina futbolera itzultzea erabaki nuen. Futboleko jokatzeko espazio gehiago dago, eta jokoa ezberdina da. Nik futboleko jokatzen gehiago disfrutatzen dut. Eta orduan Gazte Berriak hasi nintzen.

Infantiletan denboraldi bikaina egin zenuen Gazte Berriekin. Aldi berean, 14 urte azpiko Nafarroako futbol selekzioarekin ere aritu zinen. 2022 urte hasieran, oraindik 14 urte bete gabe zenituela, Villarrealera fitxatu zenuela jakin genuen, 2022/2023 denboraldian bertan hasteko. Erabakia, gainera, zuk hartu zenuen, ez zure gurasoek.



Joseba Perez Fernandez, Villarreal C.F. jantziarekin. VILLARREAL C.F.

Bai, hala da. Villarrealera joateko erabakia nik neuk hartu nuen. Gurasoek argi eta garbi esan zidaten nire erabakia izan behar zela, nik erabaki behar nuela zein taldeetara jo behar nuen, aukera hau ez zelako euren dako, niretako baizik.

Izan ere, beste talde batzuek, esaterako Errealak, Osasunak eta Athletic-ek zuzen interesa ere bazuten. Zergatik Villarreal?

Argi nuen. Villarrealen harrobia estatuko hoberenatarikoa da, eta animatu nintzen. Noizbait nigan interesik ez badute edo zerbait gertatzen bada, etxera itzul naiten eta inguruko taldeetan probatu. Beti dago etxeko taldeetara bueltatzeko aukera.

Aita realzalea eta ama athleticzalea dituzu; eta zu, berez, gorritxoa, osasunazalea. Ez al zenuen Osasun geratzeko tentaziorik izan?

Argi nuen Villarrealera joan nahi nuela, uneren batean zerbait gustuko ez badut bueltatu naitekeelako.

BIZIMODU ALDAKETA

Aldaketa handia, Nafarroatik Castellonera. Ez zen soilik futbol talde aldaketa izan, ikasketak eta bizimodu bera aldatu baitzitezaz, familia eta lagunetatik urrutituta. Non bizi zara?

Villarrealera Manuel Llanaezako Kirol Hiriko erresidentzian. Kirol Hiria oso handia da. Bederatzi futbol zelai ditu, eta erresidentzia, eta bestelako zerbitzuak. Kanpotarrak garenak bertan bizi gara. Aldiz, bertakoak direnak euren etxeetan bizi dira.

Eta ikasketak, non egiten dituzu?

Gure erresidentzia ondoan dagoen institutu publiko batean ikasten dut. Villarreal futbol taldean gauden kanpotar gehienak bertan ikasten dugu.

Andra Mari ikastolan ikasketak euskaraz egitetik Castellonen valentzieraz eta gaztelaraz egitera, aldea handia izango da.

Bai. Euskara utzi, eta valentziera eta gaztelaniera hartu behar izan nituen. Hasieran zaila egin zitzaidan, baina denborarekin ohitu nintzen. DBH 3 egin nuen joan zen urtean; eta aurten, DBH 4 maila.

"HASIERAN TALDERA EGOKITZEA KOSTATU EGIN ZITZAIKAN, BEROARENGATIK. GERO, OHITU NINTZEN"

Pentsatzekoa da Villarrealen ha- sierako egunak ez zirela errazak izango.

Jakina. Familia eta lagunak uztea gogorra egiten da. Behin betiko joan baino lehen, egun batean familiarekin harrera egin ziguten, Manuel Llaneza Kirol Hiriko instalazio guztiak ezagutzeko, erresidentzia barne. Gero, Lakuntzara bueltatu ginen, eta 2022ko udako oporren ondoren jada ni bakarrik joan nintzen.

2022/2023 denboraldian Valentzia- ko Liga Autonomikoko kadeteen mailan jokatu zenuen. Zer moduz egokitu zinen talde berrira?

Hasieran kostatu egin zitzaidan, beroarengatik. Villarrealen sekulako beroa egiten du, eta beroa egokitu beharra dago. Gutxika, ohitu nintzen. Taldekideekin, aldiz, hasieratik oso gustura aritu nintzen. Lehenengo egunetik harreman ona egin nuen taldekideekin.

Nongoak dira taldekideak? Bertakoak ala kanpotarrak?

Villarrealen harrobian gehienak kanpotarrak gara; proportzioan, bertakoak baino gehiago. Andaluziar asko daude. Estatuko jendea: nafarrak, madrildar pare bat...

Villarrealen helburuetako bat ha- rrobi indartsua izatea da. Estatu guztian barna ikuskatzaileak dituz- te, jokalariei jarraitzen. Harrobia sorzeko apustu handia egin dute. Horregatik zaudete kanpotar gehia- go bertakoak baino?

Valentzian jokalaria oso onak daude, baina Villarreal lehen mailako harrobia egiteko lanean dabil, eta harrobi sendo hori sorzeco nahian jokalaria asko kanpotik ekartzen dituzte.

IKASI, ENTRENATU, JOKATU Nolako da zure egun normal bat Villarrealen?

Egun guztiak berdina dira: jai-ki, eskolara joan, eta bazkaldu ondoren etxeko lanak egiteko ordu bat izaten dugu. Laguntza ematen diguten irakasleak ditugu alboan, ditugun zalantzak argitzeko eta ikasketak egunean izateko, klubak ikasketei garrantzia handia ematen baitie. Eta, ondoren, entrenatzera goaz. Egutero ordu bat eta erdi, gutxi gorabehera. Liga hasten denean, asteburuko partidak ditugu. (Irailaren 9an hasi zen Valentziako Liga Autonomikoko kadeteen 2023/2023 denboraldia, eta Villarrealen 1 eta 3 galdu zuen El Rumbro taldearen kontra).



Joseba Perez Fernandez joan zen denboraldiko partida batean jokatzeko, Villarrealen. VILLARREAL C.F.

Zer moduz joan zen aurreko den- boraldia?

Joan zen denboraldian kadeteen lehen urtean nengoen, eta Roda taldean jokatzeko nuen. Izan ere, kadeteetan bi talde ditu Villarrealen: Villarreal eta Roda. Rodan lehen urteko kadeteak aritzen ginen bereziki, baina arerio asko bigarren urtekoak genituen. Ligan ongi hasi ginen, baina gutxika behera egin genuen eta, azkenean, mailaz jaitsi ginen. Aurten kadeteen Villarreal taldean jokatuko dut, bigarren urteko kadeteetan. Joan zen urtean hirugarren sailkatu zen.

Zein dira aurtengo helburuak?

Liga irabaztea. Valentziako kadeteen liga maila handikoa da, zaila. Villarrealen gain, Valencia eta Levante taldeen harrobiko taldeak ere oso onak dira, baina baita gainontzeko taldeak ere. Badaukagu irabazteko eta goian egoteko presio hori.

Aurre denboraldia abuztuaren 7an hasi zenuen, ezta?

Kadeteena bai, baina nik aurten aurre denboraldia jubenilekin egin dut. Lakuntzan oporretan nengoela jubenilekin entrenatuko nuela esateko deitu zidaten. Uztaile bukaeran joan nintzen Villarrealera. Espero baino lehena. Gustura aritu nintzen eurenkin, ongi. Baina 2023/2024

"AURRE DENBORALDIA JUBENILEKIN EGIN NUEN, KLUBAK HALA ESKATUTA. GUSTURA ARITU NINTZEN, ONGI"



Irailaren lehen asteburuan atsedaldia izan zuen, eta Lakuntzan izan zen bisitan.

denboraldia kadeteen Villarreal taldean egingo dut. Pentsatzen dut jubenilekin entrenatu nuela esperientzia gehiago hartu eta kadeteetan hobeki aritzeko. **Alboko jokalaria zara, hegala, ez-kerra. Hortaz, oso preziatua.** Beno... (kar, kar) **Nola ikusten duzu zeure burua jokalaria gisa? Hobetzen zoaz? Zure errendimendurekin kontentu al zaudete?**

Oso kontentu nago. Ez dut lesio larriarik izan, zortea alde, eta alde horretatik ere pozik nago. **Nolako da entrenatzailea? Zuen onena lortzeko asko estutzen al zaituzte?**

Joan zen urteko entrenatzaileak ez gintuen gehiegi estutzen, baina, aurtengoak, Victor Herrerok, bai, ordea. Jatorra da: gustuko dut. Estutzen gaitu, eta hori da egun behar duena.

Villarrealera joateko hartutako era- bakiarekin ongi egin duzula sentitzen al duzu?

Bai. Tarteka badituzte txarrak, eta behera egin nuen hasieran bereziki. Une horietan pentsatzen nuen esaterako Athletic aukeratu tuko banu, asteburuko Lakuntzan nengoela, familia eta lagunekin... Tarteka izaten ditut halako unetxoak, baina pasatzen zaizkit. **Nola hartu zuen familiak zure mar-
txa? Euredako gogorra izango zen.** Suposatzen dut gogorra izango zela, eta izaten jarraitzen duela. Hilero asteburu bat pasatzera

"VALENTZIAKO KADETEEN LIGA MAILA HANDIKOA DA, ZAILA. BADAUKAGU GOIAN EGOTEKO PRESIO HORI"

etortzen dira, nirekin egon eta partida ikustera.

Hortaz, pozik etorriko zara Lakuntzara, oporretan eta libre duzunean. Bai, deskonektatzen dut eta oso gustura egoten naiz lagunekin. Aurten taldekide bat egon zen egun batzuk pasatzen: Welle Babacar senegaldarra. Bera bakarrik etorri zen hona; bere familia Senegalekoa da. Bartzelonako zentro batean dago, talde batean jokatzeko hasi, eta handik hartu zuten Villarrealen jokatzeko. Oso jatorra da, lagun ona. Gustura egon zen Lakuntzan. Aurten ere elkarrekin jokatuko dugu.

PIXKANAKA, GORA

Villarrealgo lagunekin ateratzen zaretean zer egiten duzue?

Gehienak futboleko lagunak gara, eta normalean afaltzera ateratzen gara, eta tarteka, zinemara. Baina parrandarik, apenas. Askok zaindu beharra dugu.

Lehen mailako Villarrealen partidak ikusteko aukera duzue?

Bai. Gu bazkideak gara. Pasea ematen digute, eta partidak ikustera joaten gara. Villarreal ongi ikusten dut; Barçaen kontra nahiko ongi aritu zen, baina Cadizen kontra galdu egin zuen. Ligan goian urtero berberak egoten dira borrokan: Barça, Real Madrid, Athletic de Madrid... Eta gero, azken urteetan Real eta Villarreal Champions postuen lehian egoten dira.

Villarrealen Valenciarekin eta Le- vanterekin lehiakortasun handia du kategoria guztietan. Derbiak emozio handikoak izango dira, estuak.

Bai. Oso. Aurreko denboraldian bigarren mailako Villarreal B eta Levante taldeen arteko derbian baloia jasotzen aritza tokatu zitzaidan, Levanteko zaleak zeuden harmailaren parean. Levanteko zaleak builaka, deidarka, kexaka... Ez ninduen gehiegi harritu, hemen ere Osasuna zalapartatsua baita.

Goiko kategorietara, lehen mailara edo bigarrenera heltzea oso gares- tia izango da.

Nik ez dut horretan asko pentsatzen. Finean, urtero eta pixkanaka igotzea da kontua. Kadeteak, gero jubenilak... Gero, bigarren mailako Villarreal C taldea dago, eta, azkenik, lehen mailako Villarreal. Helburua, orain, kadeteetan lan ona egitea da.

Zaila izango da denboraldia? Guztiak dira zailak. %100 eman beharra dago, eta ea nola ateratzen den!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 15

ARBIZU Jardunaldia.

Lidertza partehartzailerako adimen emozionalari buruzko jardunaldia, ANELEk eta Sakanako Garapen Agentziak antolatuta.
09:00etan, Utzugenen.

ARBIZU Zirkua.

Gure Zirkua emanaldia.
19:00etan, Gure Zirkua karpan.

ZIORDIA Kontzertua.

Endika Laia taldearen Fito & Fitipaldis, Antonio Flores, Los Secretos eta abarren bertsoen kontzertua, Etxaleku tabernaren 30 urteurrenaren barruan.
20:30ean, Etxaleku tabernan.

LARUNBATA 16

LAKUNTZA Dantza ikastaroa.

Nafarroako Dantzarien Biltzarraren *IkasMutilDantza* mutil dantza ikasteko prestakuntza saioa.
09:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 18:50era, kultur etxean.

ARBIZU Zirkua.

Gure Zirkua emanaldia.
17:00etan eta 19:00etan, Gure Zirkua karpan.

EGIARRETA Festa.

Arakilgo Agur uda festa.
Itxasperrin.

18:00 *Milagros-Valentina* antzerki ikuskizuna Lorena Arangoa eta Aintzane Baleztenaren eskutik.

19:00 Oskia txistu taldearekin plaza dantzak.

20:30 Kontzertua: Anphora taldea.

IGANDEA 17

UHARTE ARAKIL Mendi

lasterketa.

XIV. UharTE Arakil - Beriain km bertikala. Ibilbidea: Bost kilometro eta 1.020 metroko desnibela.
10:00etan, plazan.

LAKUNTZA Kontzertua.

Kontzertu korala Paz de Ziganda helduen abesbatzaren kontzertua.
13:15etan, San Salvador elizan.

ASTELEHENA 18

URDIAN Tailerra.

Irakurkide Txakurk lagundutako irakurketa tailerrak, Biak Bat elkartearen esku, Biak Bat-ek eta Sakanako Mankomunitateak antolatuta.
17:00etan, liburutegian.

ASTEAZKENA 20

LAKUNTZA Jardunaldiak.

Sakanan zaindu gertutik zaintzaren inguruko jardunaldiak, Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatuta.

Kultur etxean.

16:15 Harrera eta materialen banaketa.

16:30 Sarrera hitzaldia: Zaintzak erdigunean, zertaz ari gara?

17:15 *Eraldakatarako esperientziak I.*

18:00 Atsedenaldua.

18:15 *Eraldakatarako esperientziak II.*

19:15 Ondorioak.

IRURTZUN Ipuin kontaketa eta tailerra.

Hitzaztanak (ahoz gozaten duten hitz laztanak) ipuin kontaketa eta tailerra, *Bakea eta bizikidetzaren lantzen duten liburutegiak* programaren barruan.
18:00etan, liburutegian.

IRURTZUN Irakurle taldea.

Irakurle taldea: Leslie Feinberg idazlearen *Mari-mutil handi baten bluesa* liburua.

19:00etan, Pikuxar euskal txokoan.

OSTEGUNA 21

LAKUNTZA Jardunaldiak.

Sakanan zaindu gertutik zaintzaren inguruko jardunaldiak, Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatuta.

Kultur etxean.

16:30 Nolakoak dira zaintzen duten herriak eta eskualdeak?

18:00 Atsedenaldua.

18:15 Zaintzaren pedagogia.

OSTIRALA 22

ETXARRI ARANATZ Solasaldia.

Istoria bat opari. Nola aukeratu irakurgai on bat? Dorleta Kortazar ipuin kontalariaren solasaldia.
17:00etan, kultur etxean.

ZIORDIA Ipuin kontaketa eta tailerra.

Hitzaztanak (ahoz gozaten duten hitz laztanak) ipuin kontaketa eta tailerra, *Bakea eta bizikidetzaren lantzen duten liburutegiak* programaren barruan.
18:30ean, liburutegian.

ETXARRI ARANATZ Hitzaldia.

Osasuna zure eskuetan. Osasuna berreskuratzeko eta gaixotasunari aurre hartzeko ikasteko Eneko Landaburu sendagilearen hitzaldia, Etxarri Hartz Klinikak antolatuta.
19:00etan, kultur etxean.

ZIORDIA Kontzertua.

Totem y Tabu taldearen rock and roll, country eta pop bertsoen kontzertua, Etxaleku tabernaren 30 urteurrenaren.
20:30ean, Etxaleku tabernan.

ZINEMA

ALTSASU


ORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Las chicas están bien gaurkotazuneko filmaren emanaldia
Osteguna 21: 19:00


OHARRA: Iortia kultur guneko zinema emanaldien datak aldatu dituzte: ostegunetan, igandetan eta astelehenetan izanen dira orain.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 15




Larunbata, 16



Igandea, 17



Astelehena, 18



Er **vit** **i** aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erokusketak Irurtzunen

Ez bota etxea leihotik!

IRAGARKI SAILKATUAK

MEKANIKARI LANPOSTUA

Kamioi eta autobus tailerra Sakana inguruko langile bila. Mekanika, txapa eta margo ezagutzak baloratu dira. Telefonoa 948 507 019

IKASTAROK

Arte tailerra Altsasu: Marratzu, jolastu eta naturarekin irudimena askeaz elkarrekin gozatu. Haurrendako ikastaroa astean egun bat eta helduendako astean egun bat edo hilean bi asteburu. Hasierra urrian da. Izena emateko deitu, Manola 634 446 954 telefonora.

Irurtzango Udalak helduentzako ikastaro eskaintzan izen ematea zabalik: Antzerki tailerra, irakurketa taldea, marrazketa eta pintura, hipopresioak, Pilates, Aerobik, Gap/bizkortzea, kirol entrenamendua, gorputz jarrera eta spinning. Aukeratu eta izena eman irailaren 27a baino lehen www.irurtzun.eus web orrian edo Udaletxean matrikula ordaindu eta formularioa bete behar da bi kasuetan. Lehentasuna errotatuek izango dute. Informazio gehiago kulturexia@irurtzun.eus idatziz, udal txean edo web orrian.

Aralarko Udalaren ikastaro eskaintzan izen ematea zabalik: Yoga, mantenimendu soinketa, oinarrizko jostintza eta eskulanak dira ikasturte honetako eskaintzak. Informazio gehiago eta izen ematea www.arakil.eus web orrian edo udal txean.

Sakanan Zaindu gertutik jardunaldia: Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak irailaren 20ean eta 21ean Lakuntzan antolatutako jardunaldietan izen ematea zabalik. Informazio gehiago berdintasuna@sakana-mank.eus helbidetan

LANA/NEGOZIOAK**ALOKAGAI**

Altsasun 'Coworking' bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertso-

nen artean partekatze bulego; Wifi, inprimagailua, berogailua, komuna eta office-a ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonotara deituz.

OHARRAK

Lakuntzako Udalaren euskara ikasleendako dirulaguntza: Aurreko ikasturtean euskara ikasi dutenendako dirulaguntza deialdia zabaldu du. 16 urtetik gorako lakuntzarrei zuzendua. Interes duenak www.lakuntza.eus web orrian du aurkeztu beharreko dokumentazioa, urriaren 15a baino lehen.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak whatsapp aplikazioa zabalpen zerrenda bat sortu du, Berdintasun Zerbitzuetik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu whatsapp-eko mezua zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

Euskara hutsezko Udalekuetara joango diren haur eta gazteendako dirulaguntzak: Udalekuak 5 egun eta 15 egun bitartean irau behar dute eta ekainaren 15etik irailaren 30era bitarte burutu behar dira. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian eskura dezakezue.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskaraz hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Aralarko Santutegiko museon bisita gidatuak egiteko aukera: Aralarko Santutegiko museoa ikusi eta bisita

egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igandeetan 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

Guardetxeko argazkiak biltzeko deialdia: Lakuntzako Zabalarte Elkartea Aralarko Guardetxe agertzen diren argazkiak biltzen dabil, eta erakusketa bat egin nahi dute "Guardetxe proiektuaren egoera eta egin daitezkeen hurrengo ekintzei buruz hitz egitea" du helburu. Halako irudiren bat duenak udaletxera bulego ordutegian joan daiteke argazkia eskaneatuko dute eta jabeari bueltatuko diote momentuan bertan.

Adur rol jolasa euskaraz eta doakoa: Telegram bidez jolasten den rol joko bat jarri du marxan Eneko Azedok. "Adur - Azken erroka" Euskal Erdi Aro mitologikoan girotuta dago. Iruñetik hasi eta Euskal Herri guztitik bidaiatzeko aukera ematen du, izaki mitologikoak aurkitu eta abenturak biziz. Telegram bidez esteka honetan sar zaitzake: <https://t.me/+ANUJSCts0M210>.

Arropa bilketa: Baduzu erabiltzen ez duzun arroparik, eta ez dakizu zer egin? Arakilgo udal txearren arkupean bilketa gune bat irekitzera goaz. Hila-beteko lehen azoka egunean, astearteetan, 11:00etatik 13:00etara. Errotxapean dagoen Elkarri Laguntza Elkartek duen egoitzara eramango dugu, bilketaren bihar-munean. Itxipuru Taldea 620 254 230 eta Mank Anitzartean 648 070 710 antolatuta.

Lakuntzako jendeari Gaztetxokotik: Gaztetxokoak lakuntzarrei jakinarazi dienez, etxean erabiltzen ez dituzten eta gaztetxokotan erabilgarriak izan daitezkeen objektuak hara eramantzeko. Kiroletako materiala, mahai jolasak, eskulanetarako materiala, etab. Gaztetxokoa Uriz kalean dago eta larunbeteetan eta igandetan 16:30tik 20:00etara egoten da zabalik, orduan eramantzeko gauzak iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

HERIOTZAK

• **Antonio Igoa Mundiñano**, irailaren 12an Etxarri Aranatzen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Jarri zure iragarki laburra!

iragarkiak@guaixe.eus

**IRAGARKIA JARTZEKO:**

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskela@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN

Izarra, Nafarroako tanatorioa
Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 • www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



Mikel Montesinos Jesus argazkilaria. UTZITAKOA

Argazkilaria-aren begirada

Mikel Montesinos Jesus altsasuarra duela bost urte inguru hasi zen argazkilaritzan, eta irailaren 20an bere lehenengo erakusketa mustuko du Zumarragan: 'Beste begirada'. Hilaren 30era arte egonen da ikusgai, eta abenduan Altsasun izanen da

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU
Urduritasun egunak izaten ari direla aitortu du Mikel Montesinos Jesus argazkilaria altsasuarrak. Izan ere, bere lehenengo argazki erakusketa prestatzen ari da Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean, *Beste begirada* izenpean. Irailaren 20etik 30era egonen da ikusgai, eta 23an, 24an eta 30ean bisita gidatuak egingen ditu. "Egiten duena" erakutsiko du *Beste begiradan*. Argazkilaritzan hasi zenetik sortu dituen argazkien lagin handi bat izanen da. "24 argazki jarri behar ditudala esan didate, eta, momentuz, 36 ditut. Zaila izaten ari da aukeratzea".

Montesinosen esan du "betidanik" gustatu izan zaiola argazkilaritza. "Familian barruan daramagu. Argazkilaria zen gure amona Julia Julita Zornoza. Herriko festetan eta abarretan ar-

gazkiak ateratzen zituen". Argazkiak estudio batean erretokatzeko lehenengo emakume nafarra izan zen. 1936ko estatu kolpearen ondoren atxilotu egin zuten amona, ilea moztu, eta Altsasuko kaleetan ibilarazi zuten. "Ez da bere argazkirik gel-ditu; hala ere, orain bere lana ikertzen ari dira". Bere lana gaur egun arte iritsi bada ere, Mikelek "zerbait" badu barruan, orain arte kontziente izan ez bada ere: odolean zeraman argazkilaritza. zeraman. "Aita izan da nire argazkilaritza kuriositatearen motorra. Beragatik saiatzen naiz

"ARGAZKIAK EGITEN ASKO DISFRUTATZEN DUT; PROBATZEN ETA ESPERIMENTATZEN JOATEN NAIZ"

argazki bat aurrekoa baino hobea egiten. Irudimen gutxiko momentuetan asko animatzen ninduen aitak".

"Egun batean kamera bat erosi nuen, eta Sorginetxera joan nintzen argazkiak egitera. Bertan bikote bat aurkitu nuen. Argazkilaria ziren. Oso jatorrak. Gau-argazkiak atera behar zituztela esan zidaten, eta beraiekin aritzera gonbidatu ninduten". Etxera itzuli zen, gauerako dena prestatu, eta gaua Sorginetxen eman zuten hirurek. "Asko ikasi nuen beraiekin". Haietako batek, Maitek, Europako Fujifilm saria irabazi zuen, "irakasle ona izan nuen, eta kasualitate hutsa izan zen haiekin topo egitea". 2019ko uda zen.

Autodidakta
Sorginetxen ezagutu zuen argazkilaria bikote hark "oinarri-

koena" irakatsi zion. Orduetik asko ikasi du Montesinosen. "Zortea izan nuen bikote harekin elkartzen; bestela, argazkiak egiten ikastea gehiago kostatuko zitzaidan eta ikastaro trinko batera joan beharko nintzen". Pixkanaka, kamerarekin gauza gehiago egiten ikasi du: "Hasieran, nik gortina efektua deitzen niona, esposizio luzea... Konturatu nintzen hura gustatzen zitzaidala". Bideo asko ikusten ditu, eta ikasitakoarekin, "probatzen eta esperimintatzen" duela esan du Montesinosen: "Gauzak egiten hasten zarenean eta ateratzen direla ikusten duzunean, probatzen jarraitzen duzu".

Canon EOS 4000d bat erosizuen. "Merkeena", aitortu duenez: "Ez nekien gustatuko zitzaidan edo ez, beraz, ez nintzen asko arriskatu". Tripode batek, teleobjektiboak, angular handiak eta 50 mmko objektiboak osatzen dute argazkilarialtsasuarraren ekipoa. Dagoeneko ekipoa "behar" duela aitortu du argazkilaria, "baina, pixkanaka".

"Argazki onak ateratzeko zer kamera behar den edo telefonoarekin nahikoa den galdetzen didatenean, argi daukat: berdin dio. Arau batzuk daude argazki onak egiteko. Ongi konposatuta badago, eta pixkatxo bat editatuta, berdin dio zerekin egin". Argazkiak egiteko kokka zera omen da, Montesinosen iritziz: "Koadratuta egotea, herenaren araua eta beste arau gutxi batzuk gehiago argi izatea. Eta arauak apurtzen badira, argi izan behar da ukitu hori eman diezula".

Begirada

Kalean zehar joaten denean argazkiak "ikusten" dituela esan du Montesinosen. "Batuetan toki batetik pasatzen naiz, eta argi ikusten dut argazkia. Deigarria iruditzen zait ikusten ari naizen hori. Beste batuetan, asko pentsatzen dut, eta beste argazki modu batzuk probatzen ditut. Neure buruari erronkak jartzea gustatzen zait".

Urari argazkiak ateratzea gustatzen zaio gehien. Natura eta

'BESTE BEGIRADA' ERAKUSKETA HILAREN 20TIK 30ERA EGONEN DA ZUMARRAGAN; ABENDUAN, ALTSASUN

paisaia argazkilaria da, baina bestelako argazkilaritzarekin esperimintatzea gustatzen zaio ere: txuri-beltza, makroa, erretratua eta abar. "Hiri argazkilaritza ere egiten dut. Egunerokotasuneko momentutxoak gustatzen zaizkit, oso normalak direnak; baina argazkia egitean oso deigarriak direnak. Une oso politak dira". Esposizio luzea ere "oso bitxia" iruditzen zaio. Argazkilaritzaren magia da". Argazkiak egiten "asko disfrutatzen" du Montesinosen, "asko irakurtzen eta berrirakurtzen dut, dena ongi ulertu arte. Orain kamera hartzen dudanean begiratzen dut, mugitzen naiz...". Konposizioari garrantzia handia ematen dio, eta sakontasuna ematea gustatzen zaio, "nik uste horrek beste ukitu bat ematen diela".

Garapena

Bost urte hauetan bere argazkilaritza "garatu" dela azaldu du Montesinosen. "Beste gauza batzuk egiten ditut, ezagutzen ez nituen gauzak egiten ikasi dut, probatzen... Ez dut oso ekipo handia, baina saiatzen naiz". Garaiaren arabera, mota batekoa edo bestekoa egiten du.

Beste begirada erakusketa irailaren 20etik 30era egonen da ikusgai Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean. "Egun batean lagunekin nengoan, eta kazetari izandako emakume batek nire argazkiak ikusi zituen. Hark animatu ninduen". Zumarragara jo zuen, "beste toki askotara bezala", eta erakusketan interesa izan zuten. "Nire lana erakutsiko dut; pixka bat denetarik". 24 irudi aukeratzea zaila izaten ari dela aitortu du argazkilaria. Hilaren 23an, 24an eta 30ean bisita gidatuak egingen ditu, eta bertan bere historia eta bere argazkilaritzaren nondik norakoak azalduko ditu. Zumarragaren ondoren, *Beste begirada* erakusketa Altsasuko Gure Etxean izanen da, abenduaren 22tik urtarrilaren 7ra. Gainera, bere lanak mikelmontesinos.com webgunean aurki daitezke.

"Ongi legoke txikitatik argazkilaritza bultzatzea. Haurrendako eta gazteendako ikastaroak egotea, eta, horrela, nolabait, jakin-mina sustatzea". Dagoeneko pertsona batzuk interesatuta daudela esan du Montesinosen.

Sakanako bertso eskolak hastear daude

Urriaren 9ko astean hasiera emanen diote bertso eskolen ikasturteari. Izena irailaren 30era arte eman daiteke, Nafarroako Bertsozale elkartearen webgunean. Irurtzunen, Lakuntzan, Etxarri Aranatzan eta Altsasun izanen dira eskolak

SAKANA

Nafarroako eta Sakanako Bertso Eskoletako ikasturtea urriaren 9ko astean hasiko da, eta irailaren 30 arte dago zabalik matrikulazioa, bertsozale.eus/nafarroa webgunean. Ikasturte osoko matrikularen prezioa 80 eurokoa da, eta, izena ematean, bertso ikasleek *buff* bat jasoko dute opari. Irurtzunen, Lakuntzan, Etxarri Aranatzan eta Altsasun izanen dira 2023-2034 ikasturteko bertso eskolak. Hasiberrien taldeak lau herritan izanen dira, eta bat-bateko talde bat izanen da Altsasun. Nafarroako Bertso Eskolak, Sakanakoak tartean, Nafarroako Bertsozale Elkarteak antolatzen ditu, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Sakanako kasuan, Mankomunitateko Euskara zerbitzuaren laguntzarekin.

Eskolak

Irurtzungo Hasiberrien taldea Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo maila tarteko ikasleendako bideratuta dago. Klaseak astelehenetan izanen dira, 17:00etatik 18:00etara, kultur etxean, eta irakaslea Aitor Irastortza izanen da. Lakuntzako hasiberrien taldean LHko laugarren mailako eta DBHko lehenengo maila tarteko ikasleek eman dezakete izena. Aurreratu dutenez, baina zehazteke oraindik, 18:30etik 19:30era izanen dira eskolak. Saats Karasatorre izanen da irakaslea. Bertsolari etxarriarra herriko bertso eskolako irakaslea izanen da ere, eta zehazteke badago ere, ostiraletan 17:30etik 18:30eran bilduko dira, Maisu-maistren etxean. Etxarri Aranazko hasiberrien taldean LHko bosgarren mailatik DBHko lehenengo mailara bitarteko ikasleek eman dezakete izena.

Altsasuko bertso eskolan bi talde izanen dira: alde batetik,



Lakuntzako bertso eskolaren ikasturte amaierako bertso saioa. ARTXIBOA



Altsasuko bertso eskolaren ikasturte amaierako bertso saioa. ARTXIBOA

hasiberrien taldea LHko bosgarren mailatik DBHko hirugarren mailara arteko ikasleekin; eta, bestetik, bat-bateko taldea DBHko laugarren mailako eta batxilergoko ikasleek osatzen dutena. Altsasuko eskolan ere Karasatorre izanen da irakaslea. Hasiberrien taldea ostiraletan 16:00etatik 17:00etara bilduko da, eta bat-bateko taldea asteazkenetan 17:00etatik 18:00etara. Bi taldeek AE-

Kren egoitzan izanen dituzte eskolak.

Sakanako eta Nafarroako bertso eskoletako informazio gehiago lortzeko bideak: Bertsozale elkartearen webgunea eta nafarroa@bertsozale.eus e-posta edo 948 143 747 telefonoa.

Jolasa

Karasatorrek aurreko ikasturtearen amaieran azaldu zuen haur eta gaztetxoak "doinuak

ikasten eta neurriak probatzen" hasten direla bertso eskoletan. Bertsoa jolasen bidez ikasten dute: "Esanguratsua da pantailak eta erdal hizkuntzak erabiltzen dituzten umeendako interresgarriak izatea baliabide materialik behar ez duten euskarazko jolasak".

Bertsoa hitzaren "jolasa" da, eta jolasaren bidez, hain zuzen, oinarritzko ezagutzak bereganatzen dituzte haur eta gazteek: "Doinuak hartzen dituzte, euren ahotsa probatzen dute..." Hitzerrako interes propioa dutela azaldu zuen bertsolariak, "erri-matzeko gaitasuna eta irudimena" dutela eta bertso eskoletan horretan sakontzen dutela.

2022-2023 ikasturte amaieran izan ziren lehenengo aldiz Sakanako bertso eskolek antolatutako bertso saioak, Lakuntzan

eta Altsasun. Ikasleek "ilusio handiarekin" antolatutako saioak izan ziren, eta haien agurraren ondoren zenbait bertsolari parte hartu zuten. Bertso saioak antolatzea eta plazak ematea ziren helburuetako bi, Karasatorrek azaldu bezala. Hurrengo urteetan errepikatzeko asmoarekin sortu zituzten ikasturte amaierako bertso saioak.

Txapelketa, martxan

Bihar, irailak 16, larunbata, 2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketa aurkeztuko dute, Atarrabian. Agerraldi publikoa eta argazkia egingen dituzte, kultur etxean, txapelketako hainbat parte hartzaileekin. Halaber, egun horretan jarriko dute martxan txapelketaren webgunea, eta saioetarako sarreraren salmenta irekiko.

BAZTERRETIK

IRATI EIZAGIRRE SAGASTIBELTZA

Eskolara itzulera



"Nekazaritza eredu bat ospatzen dugu"

Hamargarren edizioa du Irurtzun eta Arakilgo bertako ganadu azokak. Unai Razkin Iriarte eta Oihana Olaberria Jaka alkateek adierazi dutenez, "elkarlanean nekazaritza herrikoia eraikitzen" ari dira

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

1 10 urte. Bidea egin du azokak? Oihana. 10. urteurrena, eta indartsu gainera. Bide puska bat eginda dago. Azoka, nik uste, oso osasuntsu iritsi da 10. urteurrenera. Horrela jarraitu dezagun.

2 Zergatik antolatu azoka? Unai. Irurtzunen aspaldi azokak egiten ziren; Irurtzungo eta Arakilgo jende asko biltzen zen. Oso azoka indartsuak ziren. Gero, galdu egin ziren, eta berreskuratzeko beharra ikusi genuen. Batez ere, bertako azindari eta bertan ekoiztutako elikagaiei balioa aitortzeko. Horregatik hasi ginen, eta sustraitu den ekimena bihurtu da. Elikatzen eta zaintzen gaituen nekazaritza eredu herrikoi eta jasangarria ospatzen da azokarekin. Balio horiek gizarteratzen dira.

3 Oinarri bera izaten jarraitzen du? O. Horrek ematen dio zentzua: bertako elikadurari, bertako arrazei eta bertako barietateei balioa aitortzea. Horretan gabiltza. Sakanan lan handia egiten ari gara, eta horrela jarraitzeko asmoa dugu.

4 Zein da azokaren epizentroa? U. Irurtzungo plazak hartuko du igandeko jarduna. Irurtzunen egiten da, baina Arakil ere hartzen du. Jende asko etortzen da. Arakilen abeltzain asko dago, eta horrelako tradizioa badago. Oso pozik gaude dagoen parte hartzearekin.

5 Azokaren aurretik zerbait antolatzearen zale ere bazarete, ezta? O. Bai, azkeneko urteetan horretan gabiltza. Politza da. Irurtzun zentro gisa mantentzen da. Beti Arakilek daukan pisuari ere balioa eman nahi diogu. Baina parte hartzea handiagoa da. Ara-



Unai Razkin, Belardi elkarteko Jone Etaio eta Oihana Olaberria.

kilek eta Irurtzunek elkarrekin parte hartzen dute, eta elkarrekin mantendu izan dute azoka hau. Eta Arakilen bertan beste gauza batzuk egitea, politza da. Azoka Arakileran eraman nahi horretan, Nafarroako ardoen dastaketa egiten dugu Itsasperrin gaur, ostirala, 18:00etan. Ardogileekin hizketaldia izanda, Baztango Xuria, Bardea etxaldea eta Sada kooperatibako ardoak dastatzeko aukera izanen da. Ondoren, bertako produktuekin otamen txikia egonen da. Izena emateko epa herenegun itxi zen.

6 Zein da iganderako egitaraua? U. 10:00etan irekiko da azoka. Plazako frontoian bertako arrazetako abereen erakusketa izanen da: latxa ardia, sasiardia, Piri-nioko behia, betizua, Auritz arrazako zaldiak, Nafarroako Jakak, euskal txerria, euskal astoa eta abar. Plazan ekoizpen agroekologikoa egiten duten hamabost ekoizleren azoka gardena egonen da: gazta, esnekiak,

ogia, ardoa eta abar izanen da salgai. Lizarra kaleak, berriz, 12 artisauren postuak hartuko ditu. **O.** 11:00etan artzain txakurren hezte erakustaldia egiten du Aritz Ganboak, plazako frontoian atzean. Bestalde, goizean zehar haurrentako jokoak eta tailerrak izanen dira. Bestalde, taloak dastatzeko aukera izanen da, edota garai batean sokak nola egiten ziren ikusteko, edo burdina nola lantzen den. Jakina, musikariak ez dute hutsik eginen.

7 Gaztak ere tokia du, ezta? U. Gazta dastaketa eta txapelketa herrikoia egiten da 12:00etan. Edozeinek parte hartzeko aukera du. Horretarako txartela informazio puntuan jaso behar da. Parte hartzaileen botoen arabera, gaztagile irabazleari saria emanen diogu.

8 Bazkaltzeko garaia iristean, zer? O. Bazkaria Pikuxarren egiten da. Bertako produktuekin osatutako menua izanen da.

9 Arratsalderako planik prestatu duzue? O. Zerbait berezia: bi udalerrien arteko herri kirol desafioa izanen da. Nik uste gauza polita dela, lehia txiki bat bi udalerrien artean. Giro polita egonen da plazan 18:30etik aurrera.

U. Horregatik, ez dugu asko bazkaldu beharko, gero kirola ongi egiteko. Erronkarekin batera, arratsaldean emakumezko harri jasotzaileen erakustaldia izanen da.

10 Arakil eta Irurtzunen arteko erronka. Taldeak entrenatuta eta prest daude? U. Uste dugu gauza polita dela bi udalerrien arteko lehia sanao egiteko eta bien arteko harremanak estutzeko. Beraz, arratsaldean badago zer ikusi.

11 Arakilen eta Irurtzunen arteko erronka horretan zein izanen dira egin beharreko probak? O. Herri kiroleko bost proba dira. Lautan (trontza, zakuak eramatea, txingak eta koxkolak) udalerrri bakoitzeko bikote bat ariko da; bikote horiek neska eta mutil banak osatuko dute. Horietan, beraz, udalerrri bakoitzeko zortzi pertsona lehiatuko dira.

Proba horien tartean sokatira tiraldiak egonen dira, hiru guttura. Zortzi tiralariz osatutako taldeak izanen dira. Beraz, udalerrri bakoitzeko taldeetan gehienez hamasei jokalaririk izan beharko ditu talde bakoitzak, eta jokalariek errepikatzen badute, gutxienez, zortzi. Proben artean bertsolariak eta harri jasotzaileak lanean ariko dira.

ERALDATU
zure irudia

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
 info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus